



uk

59. zenbakia / 2004 apirilak 13

# FESTIMAD'04

PARQUE EL SOTO / MÓSTOLES / www.festimad.es

28  
MAIATZAK

HEINEKEN ESKENATOKIA

**BEN HARPER**

& THE INNOCENT CRIMINALS

AKWID ★ LA FRES-K

LAKU ESKENATOKIA

**JET ★ THE RASMUS**  
**ATOM RHUMBA**

EASTPAK / B-CORE ESKENATOKIA

UNFINISHED SYMPATHY

NUEVA VULCANO

G.A.S. DRUMMERS

IT'S NOT NOT

HALF FOOT OUTSIDE

FESTIDANZ ESKENATOKIA

**SCRATCH PERVERTS**  
**PSYCHONAUTS**



ETA ASKOZ GEHIAGO...



29  
MAIATZAK

HEINEKEN ESKENATOKIA

**KORN**  
**PIXIES**

**PATTI SMITH**

LAKU ESKENATOKIA

**THE DATSUNS**

**THE (INTERNATIONAL)**

**NOISE CONSPIRACY** ★

**TOKYO SEX DESTRUCTION**

★ **YOUNG HEART ATTACK**

★ **THE BRONX**

EASTPAK / B-CORE ESKENATOKIA

**MADEE ★ STANDSTILL**

**DELOREAN ★ MAPLE**

**HAPPY MEALS**

FESTIDANZ ESKENATOKIA

**STANTON WARRIORS**

SARRERA EGUNA 50€

ALDEZ AURRETIK

BONOA 80€

SARRERA EGUNA 60€

SARRERAN

BONOA 90€

BEZ. Barne. Bonodunek soilik dute akanpatzeko eskubidea.

VENTA DE ENTRADAS  
ServiCaixa  
902 33 22 11  
servicaixa.com

o llamando al  
902 400 222  
www.elcorteingles.es

Entradas.com- 902 2216 22

Carrefour

Salmeta puntuak: Fnac, Madrid Rock, Tiendas Tipo (Bilbao, Granada, Santander), Maci Rock, Discos Revólver, Oficinas Alsa.

Babes instituzionala  
Comunidad de Madrid  
CONSEJERÍA DE CULTURA Y DEPORTES  
Dirección General de Promoción Cultural

AYUNTAMIENTO DE MÓSTOLES  
EDUCACIÓN Y CULTURA

Antolatzailea  
creAccion

Babesleak  
Heineken  
www.Heineken.es

Gomendatzen du  
TELEMADRID  
ESPAÑA

TENACIONES  
20 25

Laguntzailea  
FINE PRODUCTIONS  
Coca-Cola  
FOX

Trenbide Garraio Ofiziala  
Renfe  
Grandes Líneas  
Hongo

Errepide Garraio Ofiziala  
ALSA

Trenbide Garraio Ofiziala

Renfe

Info: 915 223 787

festimad@festimad.es

«Hiru dira boteretsu munduan: Aita Santua, Erregea eta ezer ere ez daukan gizona» (Italiako esakera)

## Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Jado. Asier Mentxaka.
- PLAZA. Andolin Eguzkitza gogoan. Leihatila, Josu Esnaola.
- LEHEN ETA ORAIN. Algortako Tangora etxea.
- TALAI. Beste begirada bat eskualdeari.
- HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
- AGENDA.

### SAKONEAN

- ALBUMA. Udalekuak neguan. Asier Mentxaka.
- ERREPORTAJEA. Zaharrak berri. Unai Brea.
- ARGAZKIA. Galipota gurean. Bubu.
- BERBETAN. Ernesto Valverde. Esti Ezkerra.
- ERREPORTAJEA. Afrika Bibang-en lehenengo diskoa.

### KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea. Fas zineklubaren 50. urteurrena.
- MUSIKA. Ehiztariak taldea. Diskoen erreseinak.
- LIBURUAK. Esti Ezkerraren zutabea eta Liburu Eguna.
- KOMUNIKAZIOA. Bizkaia Irratia.
- SAREAN. Internet, Iker Merchanen eskutik.
- ELKARRIZKETA. Amaia Basterretxea. Unai Brea.

### EUSKARAZ

- AKABUKO PUNTE. Iñaki Gilisasti, Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
- URIBERTSOAN BARRENA. ALBEkumeak eta gainera Itsaso Paiaren bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.

### AMAITZEKO

- JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non jan pintxo on bat? Salsidu tabernan
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Txori Alai abesbatza, 1964. Bittor Egurrola.
- AITORMENAK. Idoia Bilbao. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Asier Mentxaka



30 Ernesto Valverde



24 Udalekuak

### Berbetan

Fotografia da Athleticeko entrenatzailearen pasio ezkutua; bere lehenengo soldatarekin kamera bat erosi zuen. Lezaman beragaz egon ginen.



21 Juan Olea



34 Afrika Bibang



46 ALBEkumeak



54 Idoia Bilbao

**BIZKAIA**  
*irratia*  
barri - barri

### FREKUENTZIA

102,6 F.M.Bilbo 96,7 F.M.Markina 92,5 F.M.Ondarroa 98,1 F.M.Lekeitio 96,7 F.M.Aramaio

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

**ARGITARATZAILEA:** Boluntzarreta  
**HELBIBIDEA:** Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 GETXO  
e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171  
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31  
**ZUZENDARIA:** Jokin Aspuru  
**ERREDAKZIOA:** Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel  
**FOTOGRAFIA:** Asier Mentxaka  
**TESTUEN ORRAZKETA:** Xabier Bilbao  
**KOLABORATZAILEAK:** Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Bitor Egurola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buenabeña, Jabi Zabala, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarna Lepoan Euskaraz Elkartea  
**MARRAZKILARIAK:** Dogan Gozel, Gorka Vázquez  
**PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA:** Zuriñe Martínez (94 491 13 37)  
**HARREMANAK:** Gorka Orueta  
**FILMAZIOA:** Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
**LEGE GORDAILUA:** BI-1878-00  
**ISSN:** 1576-6799  
Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiazea, baimen barik, erabat galarazirik dago  
© Boluntzarreta  
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteetan Topaguneko partaidea da

**Aldizkari honek Bizarna Lepoan Euskaraz Elkartearan dirulaguntza jasotzen du**  
Itxasgane Exca / Karitatea 1  
94 491 43 57 / 48990 Algorta

**GETXOKO UDALA**  
Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

**Leioako Udala**  
Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskaraz Zerbitzuko dirulaguntza jaso du

**Erandioko Udala**  
Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

**Bizkaiko Foru Aldundia**  
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

**Fundación Grupo Eroski**  
KONSUMITZAILEARENtzAT

**UK**  
Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!  
BKK 2095 0121 10 91 02483676  
Boluntzarreta

gugeu

# Badago zer kontatu

Hauxe duzu irakurle aurtengo UK-ren bosgarren zenbakia, oso-osorik utzi berri gaituen Andolin Eguzkitza idazle, irakasle eta batez ere euskaltzale handiari eskaini nahi dioguna. Ez dugu erraz ahaztuko Andolin, izan ere, bere bizitza laburrean ekarpen ahaztezina egin dio eta euskalgintzari. Beraz, zuretzat ale hau Andolin!

Bizitzak aurrera darrai eta gu, UK egiten dugun lagunok, betiko moduan gure eskualdeko bazterrak astintzen ibili gara egunotan zuretzat, irakurle, ahalik eta aldizkaririk interesgarriena osatzeko. Bada aldizkaria hamabostean behin betetzeko gauza zelan garen itauntzen digun irakurlerik. Sekretua, baldin bada, jakinmina eta lana dira. Ez dago besterik. Han-hemen galdetu, kaletik goazela begiak eta belarriak zabal-zabalik eduki... beti dago orriotara ekartzea merezi duen istorioren bat. Idazleren batek adierazi zuen legez, erlauntzen antza dauka gu gizakion jardunak: batzuk gora doazen bitartean beste batzuk behera, baten pozgarri dena bestearen tristura da, urlia lasai dabilen bitartean sandia artega aurkituko dugu... Truffaut zinemagileak badauka film bat, gaitzat hain zuen ere film baten filmazioa daukana: itzelezko mugimendua eta zalaparta dago etengabe, bai kameraren aurrean eta bai albo eta atzeetan, zuzendaria bera ere noiz kameraren aurrean noiz atzean ikusten dugu etengabe aktore direnekin eta ez direnekin harremanean... Horrelaxe gabiltza gu ere, noiz kamerarena eginik aurrean daukaguna batuz, noiz gu ere antzetzokian agertu eta gure bizitzako edo gizarteko atal direnak orri hauetara ekarriz. Eta holan izan behar, azken batean zer da hau eta, zertarako gaude hemen, gure gizarte bizitzako filmean parte hartzeko ez bada, noiz kameraren aurrean noiz atzean.

Hemen doakizue, irakurle, beti bezala denboraz estutxo ibilita baina gogorik onenaz paratu dugun UK zenbaki hau, udaberriko bigarrena: ea aurtengatik dabilen eguzkiaren berotasunean irakurtzeko parada daukazuen. Ondo ibili!

UK-ko lantaldea

## gutunak


**Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuen testuak bidaltzeko: aldizkaria@euskalnet.net • Faxa: 94 491 58 31**

## matematika aplikatua



Gorka Vázquez

Goizero erosi > **berria**



ERANDIO, 2004

**Aurrerakuntzaren zama /** Hara zelako irudi bitxia topa dugun Erandion: mugikorra eskuman, mugiri ezin daitekeena ezkerrean. Edozerk balio du-eta telefonoz eroso berba egiteko! Agustín María de Obietaren eskultura lokutorio bihurtzea, esaterako. Berez zegoena baino harrituago geratuko zen XIX. mendean –telefonoak artean finkoak ere ez zirenean– bizi izan zen Obieta jauna, segapopotodunaren zama sorbalda gainean igartzean. Etorkizunari begira dagoela ematen du, baina zelan jakin etorkizun hori atzetik ailegatuko zitzaioala? / Argazkia: Asier Mentxaka

**Leihatila**

> Josu Esnaola

**Ordu aldaketa-aldaketa ordua**

Urtero legez, martxoko azken igandean ordua aldatu digute. Ez dakit zuoi, baina niri izugarri eragiten dit, eta hori, ustez behintzat, sasoiko nagoela. Batez ere oheratzeko orduan igarri dut oraingo honetan. Astelehenean goizean goiz altxatu behar eta betiko orduan joan ohera eta logurarik ez, buelta batera eta buelta bestera, erlojua begiratu eta orduak aurrera doazela ikusita are urduriago. Eta jakina hurrengo egunetan nekeak jota, burua ezin altxatuta. Hainbeste produktu natural, ekologiko eta ez dakit zer gehiago erostarazi nahi diguten honetan, ez al da garai era naturalagoan bizitzen hasteko? Zergatik ezin dugu eguna eta gauaren erritmoa errespetatu, eguzkiarekin altxatu eta eguzkiarekin oheratu? Ez dut uste hain konplikatu denik, baina irizpide ekonomikoan aurrean osasunak jai dauka. Irtsiko da, baina, aldaketaren ordua. 4

**GUTUNA**

**Martxoaren 24an gure artetik joan zen Andolin Eguzkitza irakasle, euskaltzain eta euskararen maitale handiaren omenez Beatriz Fernández hizkuntzalariak idatzitako agurra.**

**Andolin Eguzkitza Bilbao behean bego**

*Ohera joateko ordua heldu zaio* diozu sarean lagunek eskegi duten poeman. *Egun oso bat lanean eman eta gero*. Eta halaxe igaro zenuen joan bezpera. Egun oso bat lanean. Eskolatik bulegora, esku artean generabilen ikerketa-proiektuaren xehetasunak idatztera. Bulegotik batzarera, zer irakatsi norik irakatsi eztabaidatzera. Batzarretik irten ginenerako, ordu erdi bat baino ez mokadu bat jateko, eskolara bidean atzera ere. Entsalada zuk, platerean, beti bezain dotore; otarteko bana, berriz, guk, baldarrago.

Egun oso bat lanean, oraindik ere arratsean, telefononan baitzintudan eginbeharretatik zer zeini zegokion argitzen. *Goizean sakelekoa piztuta eraman*, esan zenidan, *bada-espada deitu behar badizugu*. Beranduegi, alabaina, bihar-munean sakeleko telefonoa piztu orduko, irratia piztua bainuen. Une bat eta oinazearen eztenkada. Sakelekoa piztu nuenerako, telefono dei uholdea zegoen bere orimen elektronikoa: 94501-ez hasten ziren gehienak. Fakultatekoak. Zure deirik ez, ordea. Ez orduan, ez orain artean.

*Ez daki bere lankideek maita duten*, diozu. Poetak ez daki igual. Ez, behintzat, hala badio. Ez da izango, bada, lizentzia poetikoa. Zer diozu zuk, ostera? Bai baitzenekien guk, zure lankideok edo, gurago baduzu, zure lankideetatik lagun hurkook, maita, maitea, benetan maita zintugula. *Ez daki estimatzen ote duten*. Poeta gaixoa! Zure zalantza ez da hori baina. Zuk bazenekien gure estimazioaren neurria nondik norakoa zen. Nondik norakorik gabea, alegia, neurri neurririk gabea. Ondotxo jakin ere. Guk geuk

baino hobeto agian. Ekin eta ekin aritu beharrik ez zenuen, ez, gugana heltzekotan.

Lankide izan baitzaitugu, lankide estimatua, urteotako ibilbide luze-labur honetan. Bidaide hizkuntzalaritzaren bidezidoretan zehar. Gogaide gramatikagintzan. Euskararen ikerkuntzan espedizio bereko esploratzaile nekagaitza. Kapeladun edertzale ederra. Eztabaida zientifiko eta sasizientifikoetan –otorduetako horietan– solaskidea. Ex-zentrikoa sarri. Maisua lehenago, maisua oraindik. Asko irakatsitakoa, irakasteko asko duena, bulego orduetan bezainbat automobileko joan-etorri goiztiarretan. Maisu adoretsua.

**«...Herrikide, aberkide beti. Zure anaia mezatarara esku-burdinez loturik daramaten aberri horretakoa»**

Lehenago herrikide, aberkide beti. Zure anaia mezatarara esku-burdinez loturik daramaten aberri horretakoa, elizan direlarik etxeok, eta etxeokoen ondoan euskaltzainak, eta han nonbait gobernu handikiak, eta idazle eta poetak, eta kazetariak, eta ikasle eta irakasleak, eta errektoregai euskaldun biak, irabazle, zuk nahi zenukeen bezala, behingoa. Aberkide, aberri horretan non eliza inguratzen duten eta alda-re nagusiaren bi alboetara, zu eta zure anaiairen bi alboetara, kaletar itxurako poliziek zelatatzen diguten.

*Hobe izanen ez ote litzatekeen / behin betiko agur esatea*, diozu. Eta gu bitartean, gaur astelehenez, fakultatean bueltan, lanean hasi beharrean, baina noraezean, doluz oraindik. Zu horren goian, Andolin. Agur ezpainetan, Tolin Eguzkitza eta Celsa Bilbao zuon aita-amen bidetik, Euskal Herriaren geografia paradisuraino handitzekotan; agur begietan, Mirande eta Arestiri orpoz orpo segika, poesia poesiago delakoan edo; agur ahurretan, Villasanteri kosk-kosk ate joka, xalotasunaren laudorioa guk baino hobeto laudatuko duelakoan. Zu horren goian, laztana, guk hemen behean horren beharrezko zaitugunean. Behean, eskoletan; behean, zure bulegoan, atean oraindik ikus daitezkeen harrera orduetan, hortxe, hementxe behean; ikerketa-proiektu madarikatuaren inprimaki horiek guztiak betetzeko indarrak batu nahi eta batu ezinik gaudela, behean, lana banatu eta kitto, nahikoa lan egin bazenu bezala. Zer duzu oraingoa? Prentsurrekoa, gramatika batzordea edo zer bilkura demonio? Behean, Andolin, ordu bat t'erdietan. Ospa dezagun Euskaltzaindiako sarreraren urtemuga. Kafea zure kontu. Zaude behean.

Zaude. Behean. Euskararen herrian. Beheko honetan. Andolin Eguzkitza Bilbao, lagun hurkoa. Behean bego. 4

**Beatriz Fernández Fernández**  
Hizkuntzalaria. EHU-ko irakaslea

**photoshop** > uriolak kirol portuan



Irudiak eta manipulazioa: Gorka Vázquez



GETXOKO UDAL LIBURUTEGIAK UTZITAKO ARGAZKIA



**Iraganez doa denbora\* beti / ALGORTAKO TANGORA ETXEA (1980-2004)**

\* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



Maria Errazkin, 99 urte; Lola Errazkin, 103 urte eta Matilde Anasagasti (jesarrita), 100 urte

### herritarrak > Barrikan aurkitu ditugu 100 urteko hiru lora

**Urteek banaka** egiten dute aurrera, eta ehun zenbatzea ez da, ez, egun biko kontua. Barrikako Adinekoen Egoitzan aurkitu ditugu 100 urteko hiru larrosa hauek, eta zein lore ederrak gainera. Zer ez ete dute ikusi hiru andrazko hauen begiek? Eta hirurak andrazkoak ganera, gizonaek ez ei dute luzarorako irauten, antza. 100 urtetik gora, norik esango luke hain majak ikusita... non sinatu behar dugu? m



Gorrondatxe hondartzarako bidean aurkitu dugu kartel hau

### begizorrotz > prestige

**Hondartzazaleentzako** ohar batzuk dira argazkiko karteltxokoak, Prestige petrolio untziauren kutsaduraren arriskutik behar bezala gorde daitezten. Horraino agintarien eta zaintzaileen lana. Baina beste nonork hizkiei irudia eta testuingurua erantsi die, apropos-aproposak biak: irudia, fuel-olio tanta lodi irrastakorrena, oharreko hitzak bai eta taula osoa apurka-apurka harrapatzen doazen mamu-atzamar geldiezinak balira; eta testuinguru berria, oharreko taula inguratzen duen marra beltza, hil berrien iragarpenak inguratzen dituen marra bezain zuzena eta irteerarik gabea. Zalantza barik lan irudimentsua dela esango dugu, "polita" denik ezin dugu esan eta, zoritxarrez. m

### ekimena > historia ikasten



Argazkian, gure historiaren inguruko ikastaroan parte hartu dutenak

**Historia** ez da milaka zale batzen dituen irakasgaia, baina geure historiaren inguruan gabiltzanean, interesa baduela onartu beharra dago. Apur bat jakin behar dugu, gutxienez, gure arbasoek-eta egindakoaz, gero, gure sustraiez harro gaudela lau haizetara zabaltzen dugunean, zertaz gabiltzan jakiteko baino ez bada ere. Helburu horregaz edo bestelakoakaz, 15 bat pertsona batu ziren Euskal Herriko Historiaren inguruan martxo amaieran egindako ikastaroan. Egizu egitasmoaren barruan antolatu zen ikastaro hau, eta hizlariak Gizarte Ikerketarako Talde Eragileko (GITE-IPES) kideak izan ziren. Nora goazen ez dakigunez, jakin dezagun, neurri apalean bada ere, nondik gatozen. m

### kale izendegia > Manuel Iradier



**Lurralde** ezezagunak ezagutzeko grina biziak bultzatuta, Gasteizko esploratzaile hau Afrikara joan zen 21 urte gaz, 1875ean; han bildutako informazioa eta egindako ikerketak hainbat aldizkaritan argitaratu zituen. Bigarren bidaia bat ere egin zuen, emaitza ugari eta interesgarriak bilduz. Esploratzaile izateaz gain, Manuel Iradier Bulfy asmatzaile ere bazen: ur-kontadore automatikoa, fototakimetroa, konposiziorako kaxa tipografikoa eta gehiago ere dira beraren asmakariak. *Africa tropical* balio handiko lan geografiko, etnografiko, linguistikoa eta botanikoa argitaratu zuen; bertan, kontinente horretako klima, fauna, landaredia, geologia, artea, folklorea, erlijioa eta tribu-antolaketa aztertu zituen, besteak beste. 1911n zendu zen, eta beraren omenez dauka Iradier izena Astrabuduko kale txiker eta ezkututxo batek. m



**BISITATU GURE DENDA!**

MOROTXO

**Kantxa Kizol moda**

**350 m<sup>2</sup>**  
**KIROLERAKO GUZTIA!!**

**URIBE KOSTAKO KIROL DENDA**

**TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA**  
**48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82**

# Bihotz handi batek odola behar du

Osasunerako Mundu Erakundeak mila biztanleko 50 odol emoile egotea gomendatzen du, herria odol kontuetan burujabe izan dadin, **Getxon mila laguneko 25 odol emoile** claude bakarrik

Getxoko Odol Emoileen Elkarteak Bihotz-Handi izena dauka, eta 12 bat urte daramatza lanean. Iaztik Isabel Atxa da elkarteko lehendakaria, baina 10 urte daroaz elkartekide moduan. Bihotz-Handi elkarteak San Nikolas plazan dauka egoitza, 15 bat pertsonak osatzen dute elkarte eta atea zabal-zabalik dauzkate elkartekide berrientzako.

Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) herrialde bat odol kontuetan burujabe izateko mila biztanleko 50 emoile edukitzea gomendatzen du. Getxon zenbateko horren erdia besterik ez da emoile, 2003ko datuen arabera. Horren albotik, Bizkaiko batz besteko kopurua milako 38,1 odol-emoile da. Hala ere, Bihotz-Handi elkarteko lehendakari Isabel Atxak azaldu digunez, "hiritalde edo herri handiangoetan emoile gutxiago egoten dira. Herrialde txikitxuetan gehiago ematen da, adibidez Diman 1000ko 103, edo Usansolak 1000ko 111, eta hemen gabiz 25 milako".

Emoileen kopuruak %2 egin du gora Alabaina, iaz odol-emoileen kopuruak %2 egin zuen gora Getxon: guztira 1.743 emoile egon ziren. "Sikeran apurke-apurke gorantz goaz, ez goaz beherantz, erronka milako 25 hori igotzen joatea da eta dauzkagun emoileen fidelitasuna izatea, odola ematen etortzen direnak sarri etortzea", esan digu Isabel Atxak.

Getxon 5 odol-emoleku jartzen dituzte: Algortako San Nikolas plazan, Redentor



Isabel Atxa, Bihotz-Handi elkarteko presidentea, elkarteko egoitzan

elizan eta abulatorioan; Areetako anbulatorioan, eta Erromoko Kultur Etxean. Opor garaian apur bat gehiago mugitzen direla aitortu digu elkarteko lehendakariak, "publizitate gehiago ipinten dogu, istripu gehiau egoten dire eta behar da odol piloá". Emoile

«Opor garaian istripuak-eta gehiago egoten dira eta odol piloá behar izaten da»

berriak erakartzeko hau diosku Isabel Atxak: "Probatzea da onena. 15-30 minutu dira, eta ez dozu sentitu behar ezebe. Sobran dakozuna bakarrik kentzen dotzue, ezin baduzu ez dotzue odolik ataritzen. Mundu honetan, gure artean, bata bestearengatik egin dezakegun gauza txikitxu bat da". m

## Odola emoteko egunak eta lekuak Getxon

- **Apirilak 19 eta Maiatzak 10:** San Nikolas plazan (Algorta)
- **Apirilak 22:** Erromo-Areetako Kultur Etxea
- **Maiatzak 11:** Redentor aparkalekua (Algorta)
- **Maiatzak 17:** Algortako anbulatorioa
- **Maiatzak 18:** Areetako anbulatorioa
- **Maiatzak 20:** Erromo-Areetako Kultur Etxea
- **Ordutegia:** Arrastiko 16:30etik 21:00etara

## Jabebako txakurrak sarean

Galdutako txakur edo katuak aurkitzeko edota etxean hartzeko aukera dago interneten bitartez



Txakur bi Algortako Portu Zaharrean

Txakurra edo katua galdu baduzu erraz aurkitzeko aukera eskaintzen du Getxoko Udal Txakurtegiak. Izan ere, txakurtegiara heltzen diren txakur zein katuen datu base bat sortu dute, bai eta interneten jarri informazioa: Getxoko web orrian sartuz gero eskuratu daiteke.

Hala ere, 14:30etik aurrera txakurtegiara heltzen diren animalien berri hurrengo egunean jarri dutela adierazi dute arduradunek. Eta asteburuan zehar batutako berri jaso gura duenak ere astelehenera arte itxaron beharko du. Galdutako animalia bat web orrialdean aurkitzen bada, alboan dagoen erregistro

zenbakia bakarrik eman beharko zaio txakurtegiako arduradunari.

### Etxera eroateko aukera

Galdutako txakur zein katuak aurkitzeko aukeraz gain, zerbitzu honek txakurtegiaren dauden animaliak adoptatzeko aukera eskaintzen du. Galduta topa diren edo kalean utzi diren animalien bila 30 eguneko epean inor ez badoa, gura duenak eroan dezake animalia hori etxera, ugazabak eskubide guztiak galtzen dituzte. Gainera, doakoa da zerbitzu hau.

Informazio gehiago: [www.getxo.net](http://www.getxo.net) edota 94 676 55 79

## JAVIER OTXOA TXIRRINDULARITZA KLASIKOA, HILAREN 18AN

Javier Otxoa Txirrindularitza Klasikoa, edota XIX. Randonne Punta Galea hilaren 18an egingo da. Goizeko 09:00etan ekingo diote txirrindulariek ibilbideari, eta hasiera zein helmuga Fadurako belodromoan egongo da. Ibilbide bi prestatu dituzte, bata 100km-koa eta bestea laburtxoagoa, 82km-koa. Parte hartzeko betebeharrak hurrengoak dira: federatuta egotea (ez dagoenak egunean bertan egin ahal izango du), izen-emateko kuota ordaintzea (federatuek 8 euro eta ez-federatuek 20 euro), eta ahaztu barik buru-babesa edo kaskoa eroatea.



## MARIA CRISTINA PLAZATIK EREAGA HONDARTZARA JOATEKO IGOGAILUA LASTER

Aspaldi plazaratu zuen Getxoko udalak Ereagako hondartza eta Maria Cristina plaza lotuko zituen igogailu bat jartzeko asmoa. Obra horiek egiteko ardurua Lehiaketa Publikoaren bitartez esleitu gura zuen udalak, eta lehen Lehiaketa horretara ez zen enpresarik aurkeztu. Hori dela eta, obrak egiteko lehen Lehiaketa horretan aurreikusten zen diru kopurua %10 igo du udalak, eta orduan bai, Balzola Eraikuntza eta Sustapen enpresari esleitu dizkio lanak. Lanontzako aurrekontua ia 1.397.000 eurokoa da eta asko jota 2005erako gauzatu beharko dute igogailuaren proiektua.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

## LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m<sup>2</sup>ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

## Saharagaz elkartasuna

**Getxok** elkartasun keinua bidali gura dio aurten ere Saharako herriari, eta horretarako elikagaiak bidaliko dituzte bertara. Iaz 24.135 kilo jaki batu ziren Getxon Saharara eroateko, eta aurten kopuru hori gaintzeko asmoa daukate antolatzaileek. Tinduf-eko errefuxiatu saharuiarrei laguntza helaraztea da helburua, luzaro gorde daitezkeen jatekoak bidaliz, hala nola arzoa, pasta, azukrea, olio... Bizkaiko hainbat udalerritan antolatu dute Frente Polisario eta Pro-Sahara elkarteek elikagai-bilketa kanpaina hau, eta Saharako herriari laguntza bidaltzeko irtengo den III. karabana da aurtengoa. <sup>m</sup>

**Harremanetarako:**  
94 466 01 30 / 655740681 (Aftal)



I

I aki

Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T:

Algorta

**Txema Uriarte** > Historialaria

“Euskal Herria ez da ondo egokitu estatu modernora”



Txema Uriarte Villamonteko Kultur Etxean eskola eman baino lehen

**Egizu egitasmoaren barruan Euskal Herriko Historia ikastaroa antolatu zuten martxo amaieran. Gotzon Iparragirre, Patxi Barandiaran, Gabriel Erkizia eta Txema Uriartek eman zuten ikastaroa, 15 bat partaideren aurrean. Txema Uriarte Errekaldeko (Bilbo) historialariagaz egon ginen berbetan.**

—Zer jakin behar du euskaldun batek nahitaz gure historiaz?

—Europako herri zahar bat gara. Batzuetan pentsatzen da euskaldunak izkina batean bakarrik izan gara eta, baina nahiko kultura ezberdinekin bizi izan gara eta ez zegoen arazorik elkarrekin bizitzeko. Gaurko egoera ikusita, oso erreza litzateke esatea herri borrokatzailea izan gara, eta bai, borrokatu dugu, baina bai eta lan egin, emigranteak ere izan gara, eta etorkinak ere jaso ditugu. Bestalde, milaka urtean hainbat sustraitara lotu gara, gure burua identifikatzeko balio dutenak gure egun, gauza ximpleak, adibidez hizkuntza. Gero, estatuak sortu zirenean, izugarritzko nahastea sortu zen hemen. Hortik aurrera, esan dezakegu gaurko egoera errepikatzen dela behin eta berriro. Euskal Herria ez da ondo egokitu estatu modernora. Bukatzeko, Ertaro oparoa ere izan dugu, baina ez dugu ezagutzen.

—Irakurri beharko genukeen liburu bat.  
—Egungo egoerari eta XIX. mendeko herriari buruz, Agustin Xaho irakurriko nuke.  
—Eta lauzpabost data garrantzitsu?  
—Lau momentu aukeratu nituzke: nekazari krisi bat, XVIII. mendeko krisi orokor bat, eta horri lotuta Frantziako Iraultza. Beste bat, foruak galdu zirenekoa, 1839an eta 1875ean, izugarritzko galera izan zen euskaldunen imaginarioak, nik uste garaiko euskaldunek sentitu zutela beren historiaren zati bat lapurtu zirela, eta horren inguruan sortuko da nazionalismoaren imaginarioa. Errepublikara garaia

**«Azken 200 urtean galtzaile izan garenez, historia gutxi idatzi dugu»**

ere aipatuko nuke. Euskararen berpizkundea 1920tik 1936ra, hor hartzen du Euskal Herriak gaurko itxura. Ordura arte, inork ez zuen pentsatzen zazpi herrialde ginenik. Eta 2004. hau ere erabakigarria izango da.

—Historia irabazleek idazten dutela esan ohi da. Zer irabazi dugu euskaldunok?

—Gu azken 200 urtean galtzaile garenez, gutxi idatzi dugu. Nik uste, gure historia idazten hasi behar dugu. Oraindik ez dago idatzita Euskal Herria osoan hartzen duen historia. <sup>m</sup>

## 2004ko Jazzaldia prest Barbara Hendricks izarren artean



Goian, Barbara Hendricks; behean, McCoy Tyner

**Getxoko XXVIII. Jazzaldiko** egitaraua prest dauka Kultur Etxeak. Ezusterik ez bada, Barbara Hendricks, McCoy Tyner, Chano Dominguez, Bill Bruford eta Brussels Jazz Orkestrak izartuko dituzte aurtengo jazzaldiaren arrats eta gauak. Bostak esanguratsuak badira ere, aipatzekoa da Barbara Hendricks lirika abeslariaren emanaldia, jazza abestuta entzutea gaitza delako eta gugandik gertu are gaitzagoa.

Ekaineko azken egunean hasi eta uztailearen 4ra arte jantziko dituzte Getxoko gauak jazz doinuek. Kontzertu nagusiak, beti legez, Bihotz Alai plazan izango dira, eta talde edo artista ezagunakaz batera lehiaketan parte hartzen duen taldeek joko dute, 21:30ean. Bestetik, Hirugarren Milurtekoa ataleko kontzertuak Getxo Antzokiko plazan egingo dira. Atal honek



aukera eskaintzen die jazz talde gazteei, eta bertan izango dira Carles Margarit Group (Bartzelona), Jon Urrutia Quatered (Euskadi), John Pinone (Madril), Solid! (Norvegia) eta Dolç Tab Jazz Project (Valentzia). Kontzertu hauek guztiak 19:30ean izango dira. Amaitzeko, jam session-ak ere izango dira, Algortako Piper's Irish Pub tabernan. Kontzertu nagusiak salbu, besteetara sartzea doan izango da. <sup>m</sup>

## LIBURU AZOKA EGINGO DA HILAREN 22tik 24ra

Apirilaren 23an Nazioarteko Liburuaren Eguna denez gero, liburu azoka jarriko da Algortako Geltoki plazan hilaren 22tik 24ra. Getxoko liburutegiak eta 10 liburutegirik hartuko dute parte, eta liburuak %10 merkeago salduko dira. Horren albotik, Getxoko antzinako argazkien erakusketa, umeentzako lantegiak etab. egongo dira. Hilaren 23an VI. Haurren Irakurtaldia egingo da, 10:00etatik aurrera. Eta azokaren azken egunean ipuin kontalari batek alaituko du urteen arratsaldea.



## IBON GARAGARZAREN LANEN ERAKUSKETA SATISTEGI TABERNAN

Ibon Garagarza algortarraren “*Fikzioak, zirrarak eta paisaiak*” erakusketa ikusgai dago Algortako Satistegi tabernan. Marrazki, eskultura eta argazki osatutako erakusketa da, hiria oinarritzat hartzen duten irudi arkitektonikoz osatua, artistak berak azaldu digunez: “*bidai koaderno bat osatzen dute guztien artean, fikziozko arkitekturaren marrazkiak liriteke*”. Erakusketa hiriaren inguruko hausnarketa dela gaineratu du.



**cianoplan s.a.**  
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk  
Antiguo Golf - Getxo

tfnoak: 944 64 90 87

944 64 86 91

http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

# Lagunen artean bapo jan

“Irakatsi jan” elkarte gastronomikoa orain dela 30 urte sortu zuten Erromo inguruko koadrilek. Gaur egun 60 bazkide elkartzen ditu

**Giro berezia** sumatzen da sartu bezain laster. Zigarro eta puruek kez girotzen dute gela, janari usaina dario zirrikitu guztietatik, eta bazkalostean solasaldi luzeek zein karta partida berok hartzen dute txanda. “Ez da gauza bera bazkaria edo afaria jatetxe batean ala hemen egitea. Lagunarteko giro aparta sortzen baita gure txokoan” azaltzen digu Angel Llamasek, “Sociedad Recreativa Gastronómica Irakatsi Jan” elkarteko lehendakariak.

Orain dela 30 urte sortu zuten elkarte Pinueta auzoko Nafarroa kalean. Gaztetan auzoko lagunekin baxoerditan ibiltzen ziren tabernaz taberna. “Lanetik atera eta taberna guztietatik ibili behar zenuen lagunena bila”, azaltzen digu elkarteko kide den Eduardo Marquezek. Horregatik, Erromo inguruko zenbait koadrila batu eta txokoaren proposamena atera zen. “Hasieran astero 500 pta. jartzen genituen; zenbait ogerleko bildu ostean, kreditua eskatu eta lokala erosi genuen”.




Bariku guztietan elkartean bazkaria egiten dute Pinueta auzoko txokoa

Oraingoz 60 kide osatzen dute elkarte. Jende gehiago sartzeko prest agertu arren estatutuaren gehieneko kopurua horrela finkatu zen. Orain dela urte bi arauak aldatu zituzten, ostiraletan eta larunbatetan emaku-

meak sartzen uzteko. Hala ere, elkarteko lehendakari Angelek dioenez, “lehen ere, baimena aurretik eskatuta, askotan sartu izan dira emakumeak”.

Bestalde, 25 urte daramatzate Erromoko jaietan agureentzako herri-bazkaria prestatzen. Hasierako urte haiek gozotasunez gogoratzen dituzte elkarteko kide biek: “dendaz denda joaten ginen janari eske; batean txorizoak, bestetan arraina, ... horrela lortzen genituen bazkariko osagaiak”. Janaririk saltzen ez zuten dendek ere laguntzen zuten zozketatzeko oparixoren batekin, “pentsa zelako alaitasuna agureena, janaria bapo

# Mintzaleku berria



Argazkian, Brahim Essaidi, mintzaleku berriaren jabea

“Besmi Llahe, Locutorio, Mintzaleku, Money Exchange, Nazioarteko Igorpenak”. Hau guztia irakur daiteke Sabino Arana Kaleko 17. zenbakiko errotiluan. Hizkuntz nahasketa, kultura ugari, jendearen joan-etorria. Azken batean emigrazioa gizarte modernoaren ezaugarri bihurtu da.

Gure herrian ere etorkin kopurua handitu egin da azkenaldian. Etorkinek sorterrira uzten dute, baina ez dute urrun utzitako familiarekiko eta lagunetikiko harremana galdu nahi. Horregatik, orain sei hilabete Brahim Essaidi Essadek mintzaleku ireki zuen Leioan.

Brahim marokoarra da, eta hamar urte daramatza Areetan bizitzen. Negozioarekin harro dago, eta “bezeroei zerbitzu

adeitsua eskaintzea” deritzo arrakastaren gako.

Bertan erabiltzaileek telefonoak, internetarako sarbidea duten ordenagailuak eta igorpen zerbitzua dauzkate eskura. Igorpen bidez dirua bidaltzen ei diete urrun dauden senitartekoei, eta harremanetarako beste zerbitzuak erabiltzen dituzte. Brahimek berak dioenez, abantailak garbiak dira: “mintzalekutik deitzea, esaterako, telefono-kabinatik zein etxetik deitzea baino askoz merkeagoa da”. Erabiltzaileen artean, “latinoak dira ugarien, Kolonbiakoak, Ekuadorrekoak eta Perukoak batez ere; afrikarrak ere gero eta gehiago dira”.

ETXEKO? ELEKTROTRESNEN? KONPON -  
**Lacofris, s.l.** SERVICIO  
 Y MARKA GUZTIAK  
 Y 24 ORDUTAN ERANTZUNA  
 Y 3 HILABETEKO GARANTIA  
 Y 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA  
 & 94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

**KURKUDI LIBURUDENDA**  
**Euskarazko irakurgai**  
 Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA  
 T: 944 913 402

**amesti 7sl**  
 [eraikuntzak]  
 [etxeetako berrikuntzak]  
 [gremioen koordinaketa]  
 Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06  
 48990 ALGORTA



## POP-ROCK LEHIAKETAN IZENA EMATEKO EPEA APIRILAREN 30EAN AMAITUKO DA

Esan bezala, Leioako Udala Pop-Rock 4. lehiaketan maketak aurkezteko azken eguna hilaren 30a da. Pop rock eta Metal ataletako irabazleek 1.600 euroko saria eskuratuko dute, eta bietako onenak Leioako jaietan gonbidatuko den talde garrantzitsu baten aurretik jotzeko aukera edukiko du.

Maketak aurkezteko lekua: Leioa Gazte Bulegoa (Sabino Arana, 48 / 48940 LEIOA). Informazio gehiago eskatzeko: 94 480 55 17 telefonoan.

**ERROTULOAK**



**ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK egiten ditugu**

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

**udondo**  
 taberna  
 eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
 T: 94 463 00 45 - LEIOA



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)





Doris Castro Rodas > Perutik etorritako erandioztarra

# “Seme-alabentzako bizimodu hobearren bila etorri ginen”

**Doris Castro Rodas peruarra Erandion bizi da. Orain dela hiru urte ailegatu zen sorterritik lana eta bizimodua bilatzeko. Sorterrian ez zuen etorkizunik ikusten eta bere ahizpak urte bi lehenago egin zuen bide bera jarraitzea erabaki zuen. Urtebete geroago senarra eta alaba etorri ziren, eta eurekin batera koinatak ere etorri ziren. Bikote biak eta euren seme-alabak elkarrekin bizi dira Altzaga auzoan.**



Argazkian, Doris Castro bere seme-alabekin

—Noiz etorri zinen Erandiora? Perutik Erandiora zuzenenan etorri nintzen orain dela hiru urte. Urte bi lehenago nire ahizpa etorri zen Erandiora eta niretzako lanpostua aurkitu zuen. Beraz, lan kontratua poltsikoan nuen etorri nintzenen. Neguriko etxe batean hasi nintzen behar-rean eta urtebete eman nuen bertan. Bakarrik etorri nintzen, baina urtebete neramala familia batzeko baimena eskatu eta senarra eta alaba etorri ziren. Bizimodu hobe baten bila etorri ginen Perutik, batez ere gure seme-alabentzat.

—Arazorik izan al duzu Erandion integratzeko? Egia esan, ni oso gustura nago hemen. Ez dut inolako arazorik izan. Hala eta guztiz ere, nahiko gurekoiak garelako aitortu beharra dut. Auzokoekin eskaile-rako harremana baino ez dugu, eta lanetik ateratzen naizenean ez zait astirik geratzen giza harremanik lantzeko.

—Etxekoak ez zarete euskaldunak baina zuen seme-alabak D eremuan matrikulatu dituzue? Bai, nire koinaten seme-alabek, Christofer eta Pamela, Altzaga ikastolan ikasten dute. Nirea berriz, General Concha kaleko Herri Eskolako D ere-

duan dabil. Bilbora jotzen naiz egunero lanera eta eskola hori lanpostutik hurbil dagoenez bertan matrikulatu nuen Valeria, nire alaba.

Haurrak matrikulatu behar izan genuenean informazioa bildu genuen. Irakaskuntza giroko jende askorekin egon


## “Oso argi ikusi genuen euskara jakitea balio erantsia dela”

ginen gure seme-alabak zein eredutan matrikulatu erabaki arte. Haurraren interesea izan genuen abiapuntu nagusia. Euskal mundua eta Peruko gauza batzuetan bat etorri arren oso ezberdinak dira, eta oso argi ikusi genuen euskara jakitea balio erantsia dela. Euskara ikasita hurrek

euskal gizartean murgiltzeko eta bizitzeko aukera handiagoak izango dituztelakoan gaude.

—Eta zuek euskara ikasi nahi duzue? Galdara bera egiten didaten bigarren aldia da hau. Nik neuk behintzat gustura ikasiko nuke baina nahikoa lan daukat familiaren beharrak asetzen saiatzen. Egun osoa ematen dut behar-rean eta etxera bueltatzen naizenean familiari eskaintzen diot geratzen zaidan denbora apurra. Ekonomia aldetik ez gabiltza soberan eta premiak beste lehen-tasunak ezartzen dizkigu. Dena den, Udalarari eta bertoko instituzioei irakaskuntza laguntza taldeak antolatzea eskatuko nieke. Bai gure seme-alabek lehenbailehen integratu daitezten, bai gurasoek gure seme-alabei lagundu ahal izan diezaiegun. m

## Jose Andres Mendiguren *Mendi*-ri omenaldia apirilaren 25ean, Astrabuduan



Jose Andres Mendiguren, *Mendi*

**Lehenago** beste dantza talde batzuetan ibiliak ziren Jose Andres Mendiguren Kamiruagak eta Javier Intxaurbe Urtiagak sortu zuten Trabudu dantza taldea

1975. urtean, eta, harrezkero, Astrabuduko hamaika neska-mutil ibili da Trabudun euskal dantzak ikasten eta erakusten. Taldeak sekulako lana egin du, baita, Santa Ageda dela, Inauteriak direla, Olentzero dela, San Lorentzoak direla... bertako ohiturak berreskuratu eta ezagutarazten.

Orain, omenaldi xumea baina beroa eskaini nahi diote teldekideek 2002ko azaroaren 30ean zendu zen Mendiri, euren esker ona erakusteko.

Hori dela eta, Txorierra eta Uribe Kostako hamar dantza talde elkartuko dira domeka goizean kalejira eta dantza saioa egiteko. Horrez gain, eliza atzeko aparkalekuen gaineko plazak oraindik ez daukala izenik eta Jose Andres zenaren izena jartzeko proposatu dio Trabudu dantza taldeak Udalarari, baina ez du, oraindik behintzat, baiezkorik entzun. m

## «PASARELA ERANDIO» HILAREN 23AN ALTZAGAN



Aurten Lutxanako arraunlariak ikusi ahalko ditugu modelo lanetan herriko merkataritzaren erakusleho izan ohi den Pasarelan. Agertokian arropak, oinetakoak, altzariak, etxeko gauzak, loreak, osagarriak eta burdindegiko gaiak erakutsiko dituzte, besteak beste. Guztira 17 dendatoko produktuak egongo dira ikusgai Erandioko Dendari Taldeak antolatu duen ekitaldian. Bonbolinak antzerki taldeak ere parte hartuko du antzez-saio laburrak eginez. Gainera, Euskal Moda Elkarte Mimas gonbidatu dute ezkongaien jantzien erakustaldia egiteko.

## SAHARAREN GAINEKO JARDUNALDIA APIRILAREN 30EAN ASTRABUDUAN

Egun osoan izango da alfonbra eta argazki erakusketa ikusteko eta tea hartzeko aukera. Arratsaldeko 19:30ean, berriz, hitzaldi oparoa eskainiko da, hainbat gairen inguruan: kanpamentuetako gaur egungo egoera, Sahararen aldeko mugimenduak zertan diren, Nishma elkartearen proiektuak zeintzuk diren eta Saharako Maratoian parte hartzearen inguruko sentipenak azalduko dituzte. Horretarako, Polisarioaren delegatu den Mohamed El Mamun, Nishmako kide den Mila Zuberu, Saharako umeei harrera egiten dien familien ordezkari Hilari Kintana eta Saharako maratoian parte hartu duten Jon Salbador, Aitor Eiguren eta Patxi Hernández atletak izango dira bertan.

Nishma elkarte: 665 708 239



## LEHIAKETA

Erandioko lehen film laburren zinemaldia, dokumentalak eta umorezkoak

- **Izena ematea:** Udalteko Kultura Sailean egin behar da, eta maiatzaren 24an amaituko da epea.
- **Sariak:** Umerezko film laburrik onena: 1.500 euro  
Dokumental laburrik onena: 1.500 euro  
Herriko film laburrik onena: 600 euro

Jose Unzurrunzaga Astigarraga

HORTZ?KLINIKA

Tel. & Faxe: 94 460 06 21  
Andikoetxe 2, behea ezkerrean  
ALGORTA

BEROGAILU ETA ITUR-



T: 430 53

Sarrikobaso 15

GOIZEAN

Prentsa - Fritu lehorrak - Aldizkariak - Libxarriak

Orduña Mendatea 1  
T: 430 22 13  
GETXO

Tellexe 13  
T: 460 02 88  
ALGORTA



## TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15

# BASARTENA

www.basartena.com

## URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



## Taberna Berni


Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf.: 944 306 493

## Ajuria taberna



Andrés Cortina 2

## ALGORTA



## jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54  
ALGORTA

[sopelana]

## AC/DCko Angus Young-en eskultura Artaza parkera eramán dute



AC/DC taldeko Angus Young-en eskultura

**Angus Young** AC/DC taldeko gitarra jole-aren irudiko eskultura Artaza parkean jarri du Sopelanako udalak. Aurreko legealdian, udaletxe aurreko plazan zegoen Australiako taldearen gidariaren irudia. Baina han zegoen eskultura norbaitek handik kendu edota lapurtu egin zuen. Orain Artaza parkean ipini dute: eskulturak Young erakusten du,

kolegioko arropakaz jantzita, praka laburrak eta guzti. Eta zelan ez, eskuetan dauka doinu itzelak eskaini dizkion gitarra ere. Beraz, lekuz aldatu dute Young handiaren eskultura, baina Sopelanan jarraitzen du, baten batek gura ez badu ere. Artaza plazan dago ikusgai, ez entzungai, Angusen punteorik ez da entzuten-eta. m

## BAKEAREN ETA TOLERANTZIAREN ALDEKO USOA



*Bakea eta Tolerantziaren aldeko Usoaren* irudia duzue hau: Roberto Zalbidearen ideia izan da berau atontzea eta Sopelanako IES Institutuko ikasleek apaindu dute. Uso hau beste uso batzuk batera Bilbon jarriko dute ikusgai, "Bilbo, Bakea eta Tolerantzia" ekimenaren barruan. Argazkian, Sopelanan martxoaren 24an egin zen erakustaldia.

[sopelana]



Partehartzaile batzuk Nikola euskaltegiaren aurrean. Behean, final laurdenak Ander Deuna ikastolan

## Esaera zaharrak gogoan eta euskara ahoan Sopelanan

**XI. Esaera Zaharren Txapelketa** antolatu zuen Sopelanako Nikola AEK euskaltegiak martxoak azken asteburuan. Sopelana eta Larrabasterra artean prestatutako ibilbidetan emandako zerrendako atsotitzak gogoratzea eta botatzea zen eginbeharra.

Bazkalostean egin ziren txapelketako final laurdenak, final erdiak eta final nagusia. Kar Kar Kar Zorroazako (Bilbo) taldea izan zen garaile, eta sarritzat basetxe batean asteburu bateko egonaldia eta Jauregi jatetxean 4 pertsonentzako afaria eramán zituzten. Hau Pittu Hau konpartsa bilbotarraren kideak sailkatu ziren bigarren, eta hauek afari bat



lortu zuten Gardoki tabernan. Hirugarren eta laugarren postua, hurrenez hurren, Tai Txi talde sopeloztarrak eta Algortako Antiboto taldeak erdietsi zuten. Kanpotarrak etxean garaile, beraz. m

## PALETA TXAPELKETAKO 50. URTEURRENA

Martxoaren 27an eman zitzaion hasiera Eskualdeko 50. Paleta Txapelketari Sopelanan. Aurten urrezko ezteiak betetzen dituen txapelketa ekainera arte jokatu da, hau da, martxoan hasi baten ere, apiril, maiatz eta ekainean zehar jokatu dira paleta partidak. Final nagusia, ezusteko edota aldaketarik ezean, ekainaren 13an egingo dela aurreikusten dute antolatzaileek.

## ESKAINITZA BERRIAK ABADESOLOKO IGERILEKUAN

Apirilean sartzeaz batera eskaintza berriak ditu Abadesoloko igerilekuak. Jarduera berriak ez dago, eta beraz, daudenak hobetu gura izan dituzte, orduetgia luzatuz, jarduera batzuk egun gehiagotan eskainiz etab. Batzuk aipatzearen: aquafitness arratsaldeetan ere egongo da, uger egiten ikasteko ikastaroen orduetgia luzatu egin da, fisioterapia zerbitzua goizetan eskaintzeaz gain arratsaldeetan ere eskainiko da, etab. Bestalde, ez legoke txarto gogoratzea, erditu aurreko edo geroko emakumeei zuzendutako ikastaroa ere eskaintzen dela igerilekuan. Ikastaro berezi hau astelehen, eguazten eta barikuetan goizez ematen da, eta martitzen eta eguenean arratsaldez.

**Informazio gehigarria: Abadesoloko igerilekuan edo 94 406 55 20**

# ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana  
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

# LAIKAK Taberna

Bentatxu, 2  
48600 Sopela  
Tf. 94 676 03 28

## Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

# GAVRKO



GIZONENTZA -  
KO MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T:

## Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobari 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA

## LEHENENGO LAGUNTZEN INGURUKO 3 HILABETEKO IKASTAROA

Apirilaren 20an hasi eta ekainaren 4ra arte, martitzen eta eguen guztietan emango da ikastaroa. Lehenengo laguntzetako (edo "sorospentako") ikastaro hau Osasun-Zentroak eta Berangoko udalak antolatuta dute. Berangoetako Kultur Etxean emango da 18:00-20:00 orduetartean. Udalerrian errolatuta daudenek 12 euro ordaindu beharko dute ikastaroan parte hartzeko, eta gainontzekoek 15 euro. 10 aste iraungo du lehen laguntzen ikastaro honek, guztira 40 bat ordu. Izen emateko epea apirilaren 16ra arte luzatu dute, Kultur Etxe bietan.

## GAZTETXOENTZAKO AKANPADA APIRILAREN 16TIK 18RA

Apirilaren 16tik 18ra akanpada antolatu dute Gaztelekuok. Baltzolan egingo dute, eta apirilaren 15era arte dago izen emateko aukera, Gazteleku bertan. Berangon errolatuta daudenek 20 euro ordaindu beharko dute, eta ez errolatuek bost euro gehiago. Salneurri horrek baruan hartzen ditu joan-etorriko bidaia, eta bazkari, afari eta amosuak.

## BERANGOKO EUSKARA BATZEN DUEN LIBURUA HERRIAN AURKEZTU DA

Berango berbarik berba liburua herrian aurkeztu zuten martxoaren amaieran, eta liburuan parte hartu duten 23 berangoztarrei eskerrak emateko ekitaldia ere izan zen hura aldi berean. Iñaki Gamindek osotu duen liburua, CD batez batera dago salgai, 12 eurotan. Berangoko seme-alaben berbakera batzen duen liburua eskuratu gura duenak udaletxean edo Kultur Etxe bietan egin dezake.

XABI MURGIA > Gazteleku-ko begiralea

## Herriko gazteen topalekua



Argazkian, Xabi Murgia. Bera begiralea da Gaztelekuan da

**Gazteleku** berangoztar gazteak batzeko lekua da Santa Anako Kultur Etxean dagoen txoko bat baino askoz gehiago. Urte bi beteko ditu aurten, eta bertako begirale Xabi Murgia azaldu digunez, "14-20 urte bitarteko gazteen eskaintzan gabeziak zeuden asti-denbora betetzeko eta haientzako gune bat izateko sortu zen *Gazteleku*". Bariku arratsaldeetan eta zapatu zein domeka goiz eta arratsaldez dago zabalik gune hau. Ordenagailuak, DVDak, mahai-jokoak, ping-pong mahai, diana e.a. daude Gaztelekuan, eta hilean behin-edo irteerak, kanpaldiak eta beste antolatzen dituzte. Talde finkoa

biltzen da bertan, "25 bat gazte, gehienak mutilak, neska gutxi datoz", aitortu digu Xabi Murgia. Euskaraz egiten ez dutela ere esan digu: "mutilek ez dute inoz egiten, eta neskek gutxitan".

### Gaurko eta atzoko gazteak

"Gazteekin lan egiteko gaztea izan behar duzu: gazteak gazteak dira eta ez dira geldirik egoten", diosku 23 urteko begiraleak. Hala ere, gaurko gazteak bestelakoak ei dira: "gu kalezaleak ginen, trastadatan ibiltzen ginen, eta horretarako ezkutatu egiten ginen. Orain mundua eurena da, guk hori ez genekien, oraingoek badakite". m

Juan Olea > Urdulizko alkatea

"Kultur Etxe eta frontoi barria ein gure doguz, eta kanposantue Atxartera eroan"

**Juan Olea da Urdulizko alkatea, eta izan ere, urduliztarra dugu bera. 63 urte dauka eta 13 urte beteko dira aurten Urdulizko alkatetza bere gain hartu zuenetik: hau dau laugarren legealdia aurtengoagaz. Pelotazale eta futbolzale amorratua dela aitortu digu, eta besteak beste, pilotaleku eta futbol zelai berriak egiteko asmoa dauka, bihar-etzi.**

—Zer egin gurako zenuke udalerrian, edo zergatik egin ezin duzuna.

—Beti dau egin guruzun zeozer. Gauze inportanteen artean etxebizitza publikok dauz. Urte bi edo hiru daroaguz beharren horregaz, oin nahiko aurreratute dekoguz eta ia aurten hasten garen. 64 bet etxebizitza eiteko soziedade bat sortu deu udaletxeak.

—Egin gura ez zenuen zeozer egin duzu alkate izan zaren bitartean?

—Ez dogune ein gure... Obratan eta holan ez dot pentsetan euki dogula problemarik. Ein gure ez dogun geuzerik ez dogu ein.

—Zein da zure Urduliz perfektuaren irudia?

—Oin gure dogu Kultur Etxe barri bet ein, badekogu proiektue eta dana, eta ia aurten atera ahal dogun subastara obre, hori derrigor behar dogu, ze dekoguna Kultur Etxe txikitxue da, ez deko lekuri. Gero premiñeko gauze bat metroko estaziñoa lurpetik iminte da. Horretan gabiltzez, oin dekogu errekalifiketako behe bat industrial: Mekanika La Peñak trasladata dekoz hango nabeak, eta gero hori erresidenziala errekalifika ingo da, eta hortik urtetan dan plusbaliek lagunduko dau lurpetik eroteko metroa. Gero beste problema bat dekune da, hemen jente askok eskatuten ditula ugerlekuak. Baie, oin Sopelanan dauzen lez, apurtxu bet itxaron beharko da. Dana



Argazkian, Juan Olea

dala, behar deuz Urdulizek ugerleku batzuk. Aurreratxauu izen beharko da. Eta perfektue izeteko... kanpo futbola barrie behar du, ia ein ahal dan, ikusiko dogu. Ostantzean, ez dau horren txarto, nik uste zerbitzuekaz-ta hain txarto ez dauela.

**«Alkatek gastuk dekoguz asko, beti toketan jako alkateari pagetea»**

—Zelan bizi da euskara Urdulizen?

Hemen euskeraz hainbeste eiten da. Urduliz beti izen da euskeldune. Oin kanpoko jente hainbeste etorri da, eta oin horrenbeste ez da eiten euskera, baia oin gabiltzez horretan: amankomunean, bailaran indarra emoten euskerari, eta ia eroaten dogun eurrera. Urduliz beti izan da herri bet euskera asko eiten dana, kanpoko jenteak gitxiu eiten dau. —Aurtengo aurrekontuak %27 egin dute gora. Zertan inbertituko duzu?

—Guk inbersiñotan hainbeste obra dekogu. Aurten inbersiñoan dekogu sartute Kultur Etxe barrie, eta frontoi bet, horrek biek aurten subastara atarateko ustea dekogu. Frontoia, pelotana bakarrik izengo da. Hor dekogun frontoi txikerra, hori bota ein behar dogu: dau leku txarrean, estutxu dau. Eta gero ganera pelotak jausten direz tailutera, tubotik sartzen direz eta gero ure sartzen jake pisutera, eta problemak euki doguz asko. Gero, bide bat gabiltze zabaltzen: elizatik Atxarterako kantarrata doana, hori zarratute egon da eta zabaldu ingo dogu. Ze biher-etzi kanposantue atara ein behar dogu dauen lekutik, eta hara gora eroango dogu. Hori bidea, paseorako be polite izan liteke, baie elizatik kanposanture hortik joateko izengo da. Kanposantue leku txarrean dau, txikerra dau lotzen, handituteko ez dau lekuri eta gero etxe artean lotuko da.

—Galdera okerra izan daiteke, baina interesa ei dauka. Zenbateko soldata daukazu?

—Nik neuk dekodan sueldu da Arcefafe-k ipinten deuen. Konteu eiten badozu sartzen dozuzen orduak, ez dakizu zenbet sartzen dozuzan. Sueldu pentsetan dozu asko dala, baia ez da hainbeste. Akabun, badakizu zer dan, dauzela gastu asko, guk alkatek gastuk dekoguz asko. Zoaz edozein lekutara, eta beti toketan jako alkateari pagetea, inbitea. Ez dakizu zer pasetan dan, baia hilean akabun diruk hortik doz. m

## URDULIZ

- Biztanleak: 3.300 inguru
- Herriaren azalera: 7,5 km koadro
- Udala: 11 zinegotzi. EAJ 7, EA 2, PSOE 1, PP 1,
- Euskaldunak eta ia euskaldunak: 2.145 (%65)
- Erdaldunak: 1.155 (%35)



**UK** aldizkaria etxean jaso nahi baduzu  
**94 491 13 37**

**UK Uribe Kostako Aldizkaria** 171 posta kutxa. Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo  
ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31

## JARDUNALDI BOTANIKOAK URDULIZEN

Apirilaren 19tik 30era jardunaldi botanikoak antolatu ditu Basozaleak elkarteak Urdulizen. Jardunaldi hauen harian hitzaldiak, erakusketak, eta Urduliztik ibilaldiak prestatu dituzte.

## HERRI URRATSERAKO AUTOBUSA PLENTZIAN

Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du Plentziako Kultur Etxeak. Maiatzaren 9an Senperen ospatuko da ikastolen jaia, eta izen-emateko epea apirilaren 26ra arte dago zabalik. Autobuseko txartelak 8 euro balio du. Informazio gehiago gura duenak hurbil dadila Plentziako Kultur Etxera.

## IZATEZKO BIKOTEEN ERREGISTROA SORTU DUTE LEMOIZEN

Izatezko Bikoteen erregistroa sortzeko erabakia hartu du Lemoizko udalak. Erregistroa indarrean sartuko da erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean. Orduan, sexu bereko zein ezberdineko bikote batek izena eman ahalko du bertan, baldintza bakarragaz: bikotekidetakoa bat Lemoizen erroldatuta egotea.

## GORLIZ Udalerrian eginiko inkestaren emaitzak kalean



684 gorliztarrek erantzun diote inkestari

**Gorlizko udalak** herritarrei bidalitako inkestaren emaitzak badakizkigu dagoeneko. Gorliztarren %83k jaso zuten inkesta etxean. 16 urtetik gorako biztanleei bidali zien udalak: guztira 4.062 inkesta. Inkesta jaso zutenetik %17k erantzun dute: 684 erantzun guztira. Erantzunak aztertzeke ardurak Bilbao Metropoli 30 elkarteak eduki du. Besteak beste, gorliztarrek hurrengoak aipat-

zen dituzte beren ustez garatu beharreko egitasmoen artean: etxebizitza, batez ere babes ofizialekoak, ingurumenaren zaintza, eta osasun zentro hobeto baten eskaria ere egiten dute, garraio bide publikoak ahaztu barik. Gorliztarrentzat garrantzitsua da euskararen normalizazioa bultzatzea ere, aisialdiko ekintzen eta herriko elkarten bidez, bai eta udaletxeko bertako erabilera. m

**aldai**

**TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK**

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

**VASA**

20<sup>o</sup> ANIVERSARIO URTEURRENA

KLIMATIZAZIO  
INGENIARITZA  
INSTALAZIOA  
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114  
48640 Berango, Bizkaia  
tel. 94 668 15 51  
Taxa. 94 66829 92  
e-mail: vasa@euskalnet.net

AENOR Empresa Registrada ER-1891/2001  
AENOR Gestión Ambiental CGM-02/006

# Apirilak 13 - 30

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: ukaldizkaria@telefonica.net • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

## ERAKUSKETAK

### PLENTZIA

▶ **Juan Carlos Lang-en margolanak.** Goñi Portaleko erakusgelan. Apirilaren 16tik 30era.

### GETXO

▶ **Elker Azketa-ren argazkiak.** Algortako erakustaretoa. Apirilaren 19tik 30era.

▶ **Gizatiar erakusketa.** Erromoko aretoa. Apirilak 23ra arte.

▶ **Artaza Institutua erakusketa.** Erromoko aretoa. Apirilak 27tik maiatzaren 11ra.

### URDULIZ

▶ **Erakusketa botanikoa.** Basozaleak elkarteak antolatutako Jardunaldi Botanikoen barruan. Apirilaren 19tik 30era.

### BERANGO

▶ **Iraganetik gaur egunera, gaur egunetik iraganera.** Alberto Diez de Tubillexa eta Iñaki Fernandez Arriagaren eskutik fosil, genealogia eta heraldika erakusketa. Apirilaren 18ra arte.

▶ **Poema eta artista.** Luis Gordilloren erakusketa, BBKren erakusketa ibiltaria. Apirilaren 19tik 31ra.

### SOPELANA

▶ **Margo erakusketa.** Zirrimarra taldearen eskutik. Sertutxa tabernan. Apirilaren 19tik 30era

### GORLIZ

▶ **Patxi Bengoaren margoak.** Erakusgelan. Apirilaren 19tik 30era

## ANTZERKIA

### ERANDIO

▶ **Sandwiches de pepino.** Bekoa ikastolan. V. Emakumeen Bideak barruan Getxoko Hezgaitez taldearen eskutik. Apirilaren 24an. 19:00.


## ZINEMA

### GETXO

▶ **Carmen.** Zine-kluba. Areetako Gran Cinema. Apirilak 15, eguena. 20:00. Sarrera: 2,60 euro

▶ **Dark Water.** Cinema Paradiso. Azpitoludun jatorrizko bertsoan. Getxo Antzokia. Apirilak 16, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro.

▶ **El poder del talisman.** XXI. Haur



### ▶ Dantza

## Biarritzeko Balleta Sopelanan

Errusiako Ballets-ei omenaldia egiten dion ikuskizuna taularatuko du Biarritzeko Balletak Sopelanan. Urko Kiroldegian egingo dantza-ikuskizuna apirilaren 30ean, gaueko 21:00etan. Sarrerak hilaen 19tik aurrera jarriko dira salgai 5 euroan udaletxeko Hall Kulturalean, Ibilaldiko dendan eta ikastolan. Orain dela sei bat urte sortu zen Biarritzeko Balleta eta bertan dantzari euskaldun, frantses, belgiar, suitzarrek etab. dihardute. Thierry Malandain-ek zuzentzen du balleta, eta 2001ean aurkeztu zuten ikuskizun hau Frantzian.

• **Non:** Urko kiroldegian • **Noiz:** Apirilak 30 • **Ordua:** 21:00

Zinema Jardunaldiak. Getxo Antzokia. Apirilak 18, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

▶ **Dias de futbol.** Zine-kluba. Getxo Antzokian apirilak 21, eguaztena. Areetako Gran Cineman apirilak 22, eguena. Biak 20:00.

▶ **A Bout de souffle.** Cinema Paradiso. Azpitoludun jatorrizko bertsoan. Getxo Antzokia. Apirilak 23, barikua. 22:00.

▶ **Bienvenidos a Belleville.** Haur zinea. Getxo Antzokian. Apirilak, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

▶ **El Traje.** Zine-kluba. Getxo Antzokian apirilak 28an. Areetako Gran Cineman apirilak 29, eguena. Biak 20:00.

▶ **Un cuento de Navidad.** Cinema Paradiso. Azpitoludun jatorrizko bertsoan. Getxo Antzokia. Apirilak 30, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro.

### PLENTZIA

▶ **La flaqueza del bolchevique.** Goñi Portala. Apirilak 16. 22:00

▶ **Master and Commander.** Goñi Portala. Apirilak 17, zapatua. 18:00

▶ **Te doy mis ojos.** Goñi Portala.

Apirilak 23, barikua. 22:00

▶ **Bob el mantas.** Goñi Portala. Apirilak 24, zapatua. 17:00.

▶ **American History X.** Goñi Portala. Apirilak 30, barikua. 21:00

### BERANGO

▶ **Amona Kaliskaren ipuinak.** Haur zinea. Eginkizun Aretoa. Apirilak 25, domeka. 17:30.

▶ **Basic.** Gazteleku, Santa Ana. Apirilak 25, domeka. 17:30.

## MUSIKA

### GETXO

▶ **Haizeko hirukotea.** Klarinete, oboe eta fagota. *Mujeres en la Musica* elkartearen eskutik. Andres Isasi Musika Eskolan, Areeta. Apirilak 17, zapatua. 19:00.

▶ **Pio Lindergaard-en omenezko jazz kontzertua.** Lewis Quartet-en eskutik. Andres Isasi Musika Eskolan, Areeta. Apirilak 24, zapatua. 20:00. Sarrerak: 6,50/8,50 euro.

### PLENTZIA

▶ **Musika Klasikoa.** Ion Irizar (biolina), Asier Arabolaza (viola) eta Elena Escalza (txeloa) arikuko dira. Plentziako Kultur Etxean. Apirilak 30, barikua. 18:00.

### GORLIZ

▶ **Udaberriko Kantaldia.** Abesbatzen kontzertua. Gorlizko Eliza. Apirilak 17, zapatua. 20:00. Besteak beste, Gorlizko Lirain eta Lirain txiki abesbatzak.

## BESTEAK

### GETXO

▶ **HITZALDIA.** "Inmigrazioa eta euskal mundua". Egizu egitasmoaren barruan. Algortako Kultur Etxean. Apirilak 15, eguena. 20:00

▶ **Iparraldeko Kanten ikastaroa.** Bizarra Lepoan elkartearen eskutik. Aldai Kulturunean. Apirilak 20, 27 eta maiatzak 4. 20:00-22:00.

▶ **Fil laburrak egiten ikastaroa.** Bizarra Lepoan elkartearen eskutik. Aldai Kulturunean. Apirilak 23 eta 30. 18:00-21:45.

**namaika hide**

zenbat gara elkarte

San Vicente 2  
4. solairua  
48001  
94 423 75 91

1 Kafe Antzokia Bilbo  
2 Kafe Antzokia Ondarroa  
3 Ondarroako Arrigorri itsas ostata  
4 Algara konpartsa  
5 Zaparrada Gaztegunea  
6 Olgetan Umegunea  
7 Elkartearen zerbitzu, ikastaro eta tailerrak  
8 Bakaikuko etxea  
9 Bilbo Hiria irratia 96.0 Fm  
10 Zenbat Gara aldizkaria  
11 Gara argitaletxea



Arrigunaga, Getxo



Azkorri, Getxo



Ereaga, Getxo



Meñakotz, Barrika




Sopelana

# Udalekuak neguan

“El txingirito, el txingirito...” abesten zuen Georgie Dannek orain dela hiruzpalau urte udako kanta sarkor horietako batean. Bada, udan leporaino beteta egoten diren taberna iragankor horiek neguan zertan diren jakin gura izan dugu UK-kook. Jakina, neguan bestelako irudi bat eskaintzen dute taberna horiek. Eta hauexek dituzue eskualdeko kostaldean aurkitu ditugun batzuk, edo arrastoak behintzat...

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Astondo, Gorliz



Gorliz



Gorrondatxe, Getxo

“Hirugarren adina”, atso-agureak, zahartxoak, edadekoak, adinekoak, aitite-amamak,... Gura dugun izena erabili ta gero eta pisu handiagoa daukatela atso eta agureek gizartean (gauza jakina da Mendebaldea deritzon hori “zahartuz” doala), eta zahartzaroa bera ere gero eta luzeagoa dela. Horrek zenbait arazo dakar, eta beraz, hainbat irtenbide topatu beharra ere bai. Uribe Kostan badaude zahartzaroari lotutako gaitzak arintzeko helburua daukaten zerbitzuak, eta horietaz berba egin digute administrazioko arduradun batzuek. Hala ere, gure eskualdea inguruko “gazteenetakoa” dela aipatu behar da.

# Zaharrrak berri

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Argazkiotan, Barrikako adinekoen egoitza. Behean, telealarmarako tramankulua.

## Noiz hasten da zahartzaroa?

Jesús Ruiz Sopelanako medikuak esan digunez, gaur ezin da “hirugarren adina”-z berba egin, bizi-itxaropena luzatzeak balio barik utzi duelako esamolde hori. “Orain, zahar gazteak daude (65-75 urte bitartekoak), zahar helduak (75-85) eta zahar-zaharrrak (85 baino gehiagokoak)”. Edozelan, zahartzaroaren hasiera 65 urteetan kokatu ohi da. Begoña Ruiz Uribe Kostako Mankomunitateko langileak dioskunez, hala ere, gero eta joera nabarmenagoa dago 60 urtetik aurrerakoak zahartzart hartzeko, gizarte-laguntzaren esparruari dagokionez behintzat. Harrigarria benetan: zenbat eta luzeago bizi, orduan eta arinago zahartu.



**Inork ez du zahar** izan gura, baina denok ailegatu gura dugu zahartzarora. Eta osasun onean, ahal bada. Gaur egun, EAEn jaiotzen diren gizonezkoen bizi-itxaropena 74 urte ingurukoa da eta andrazkoena 80koa edo. Datuok Jesús Ruiz Sopelanako medikuak eman dizkigu; adierazi digunez, “*mundu guztiak ez dauka zahartzaro osasuntsua; zahar izateari lotutako gaixotasun asko daude, eta atso-agureek, batez beste, sei sendagai desberdin hartzen dituzte modu iraunkorren*”.

Urteetan gora egiteagaz batera, ohikoa da bihotzeko, artikulazioetako eta hezurretako gaitzak agertzea. Aparteko aipamena merezi dute diabetesak eta adimenari eragiten dioten gaixotasunek, Al-

## «Uribe Kostan dozenatik gora zahar-egoitza pribatu dago»

zheimerren gaitzak batez ere. Ruizen berbetan, “*datozen hamar edo hamabost urteetan Alzheimer daukatenean kopurua bider zortzi egingo da*”. Dena dela, gaixotasunen bat edukitea ez da ezinbestekoa zahartzaroaren zama astun bilakatzeke. Beste barik, lan errazak egiteko gaitasuna moteldu egin da askotan, eta hori nahikoa da laguntza behar izateko. Beste batzuetan, bakardadea da arindu beharrekoa. Es-

kualdean zehar galdetu dugu adinekoei zuzendutako zerbitzuez, eta hau da jaso dugun erantzuna.

**Lau zutabetan oinarritutako zerbitzua** Gutxi gora behera, Uribe Kostako herri guztietan antzeko eskaintza dago adinekoentzat. Esate baterako, Barrikak ez beste herri guztiek erretiratuen etxe bat daukate gutxienez. Zahar-egoitza pribatuak ere ugari dira; herriz herriko datuak lortzerik eduki ez badugu ere, lasai asko esan dezakegu dozenatik gora direla.

Administrazio publikoari dagokionez, eskaintzak lau zutabe dituela esan daiteke: egoitza finkoak, egunez egoteko egoitzak, etxerako laguntza zerbitzua eta telealarma.

Getxok eta Erandiok egoitza finko bana daukate; Getxok egunez egoteko egoitza ere badu, eta Erandiokoa, lanak amaituta dauden arren, oraindik zabaldu barik dago. Leioako daturik ez dugu jaso, bertako arduradunek uko egin diotelako UK-gaz berba egiteari, baina jakin ahal izan dugunez, bertan daude eskualde honi dagokion Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza finkoa eta egunez egoteko egoitza.



Horietara joaten dira, hain zuzen, Uribe Kostako Mankomunitatean dauden herrietako atso-agure batzuk; beste asko Aldundiagaz hitzarmena daukaten egoitza pribatuera joaten dira.

Etxerako laguntza zerbitzua etxekolan egiteko gauza ez direnei eskaintzen

zaienezko zerbitzua da. Erraz erabili daitekeen tramankulua da, beti esku eskura dagoena, eta zuzenean SOS Deiakeri deitzen diona.

Aipatutako guztietatik, telealarma da doaneko bakarra. Besteek sortutako gas-

## «Etxerako laguntza zerbitzua hainbat lan egiteko gai ez direnei ematen zaie»

zaie. Egunero, jai egunetan izan ezik, norbait joaten da atso-agure horienara, erosketak edota garbiketa egiteko, bainu hartzen laguntzeko... Getxon, esaterako, 344 etxetan ematen da zerbitzu hau, eta Mankomunitatean, 45etan. Telealarma, berriz, bakarrik bizi diren eta larrialdi telefono batera deitzea zaila suertatzen

tuaren zati handi bat, askotan, administrazioak bereganatzen du, baina ez beti. Egoitza finkoen kasuan, esaterako, Aldundiak zati handi bat ordaintzen die aurrezkitan 6.000 euro baino gutxiago daukaten. Gehiago daukatenek euren kontura moldatu behar dute. Izan ere, zahar izateak garesti ordaintzen da... m

## Udalerriak adin-taldeka

(Ehunekotan emandako datuak)

Udalerria	0-19	20-64	65 edo +
• Barrika	16,5	64,8	18,7
• Berango	18,7	68,6	12,7
• Erandio	16,3	68,4	15,4
• Getxo	19	66,1	14,9
• Gorliz	20,1	65,7	14,3
• Leioa	19,3	69,6	11
• Lemoiz	15,3	61,1	23,6
• Plentzia	18,3	64,9	16,8
• Sopelana	21,9	68,1	10
• Urduliz	17,8	68,3	14
• U. Kosta	18,8	67,2	14
• Bizkaia	16,6	64,8	18,5
• EAE	17	65	17,9

Iturria: EUSTAT.

Ikus daitekeenez, alde ederrak daude Uribe Kostako herri batzuetatik besteetara. Adineko jende gutxi daukatenean Sopelana eta Leioa dira (azken urteotan bikote gazte asko hartu dituzten herriak), eta gehien, Barrika eta Lemoiz, bi txikiak hain zuzen. Guztiz joera argia ez bada ere, oro har atso-agureen ehunekoa biztanle kopurua jaitsi ahala handitzen dela esan daiteke. Horregatik, herri batzuk “zahar” samarrak diren arren, eskualdea bera nahiko “gaztea” da, Bizkaiko eta EAeko datuak alderatuta ederto ikusten denez. Hala ere, azpimarratzekoa da eskualdean 65 urtetik gorako portzentajeak gora egin duela nabarmen. 1986an %8,9 zen, 1991n %10,4, eta 1996an %12,5. Gero eta zaharagoak gara uribekostarrok ere.





## Galipota biltzen Bubu

Haxe duzue Jose Mari Martinez *Bubu* argazkilariak helarazi digun irudia. Argazkia iaz egin zuen Bubu Sopelanako Penatxuri inguruan. Euren kabuz eta erakundeen aginduak itxaron barik gure kostaldea garbitzen hasi ziren surfer anonimoak daukazue irudi honetan. Eurei gure esker ona!

SOPELANA, 2003

[berbetan]

Lezaman jarri dugu hitzordua. Eguneko prentsurrekoa amaitu eta berehala hartu gaitu Ernesto Valverde (Viandar de la Vera, 1964), adeitsu. Futbolaren presentzia erabatekoa den arren, ez diegu baloi kontuei heldu. Bestelako gai batek ekarri gaitu hona: argazkilaritzak, hau da, Athleticeko entrenatzailearen pasio ezkutua. Bizkaiko futbolaren bigarren etxean egonik, ez zirudien kontu erraza halako galderak aurkeztea. Baina onik atera gara abentura honetatik. Bai, profesional handia iruditu zaigu, zelai barruan zein kanpoan.

# Valverde

## Futbola erretratatzeko

Testua: **Esti Ezkerra** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Garai batean, futbolari argazkilaria deitzen zizuten lagunek. Orain nola deitu beharko genizuke, entrenatzaile argazkilaria?

—Betidanik egon naiz argazki kontuekin gora eta behera, eta argazkilaritza ikasketak ere egin egin nituen. Baina, egia esateko, lehen denbora gehiago eskaintzen nion, jokalarari nintzen garaian batez ere. Azkenaldian, argazkilaria profesionalen zortetarako, mundu horretatik kanpo nago (kar, kar).

—Beraz, ororen gainera, futbolari sentitzen zarela esan daiteke.

—Futbola barruraino sartzen zaizun kontua da, eta beraz, beti sentitzen zara futbolari. Aspaldiko futbolariak (Zarrak, Iribarrak eta) halaxe esaten dute: behin jokala-

ri izanda, betirako izango zara jokalaririk. Ados nago. Dena den, argazkilaritzari berriro heldu nahi diot. Futbolari profesionala izateari utzi nionean, argazkilaritzan

**“Jokalaririk gisa irabazi nuen lehen soldatarekin Kanariarrietara joan zen lagun bati kamera bat erosteko eskatu nion”**

buru belarri sartuko nintzela erabakita neukan, baina ez nuen hitza bete. Eta entrenatzaile lanak denbora handia kentzen didanez, gehiegi agian, ezin kamera hartu.

—Zergatik argazkilaritza?

—Betiko zaletasuna dut. Jokalaririk gisa ira-

bazi nuen lehen soldatarekin (Alavesen nengoen orduan), Kanariar uharteetara joan zen lagun bati kamera bat erosteko eskatu nion, eta ordutik argazkiak egiten

nabil. Hasiera batean denbora pasa besterik ez zen. Sasoi hartan elektronika ikasten nengon, gero UBI sartu nintzen, ondoren unibertsitatetara joateko... Orduan Espanyol taldeak fitxatu ninduen. Nik banekien Bartzelonan argazkilaritzari buruzko institutu bat zegoela, eta hantxe jo-







zurre  
dirulaguntza  
behar-beharrezkoa  
dugu

aldizkaria  
**etxean**  
jaso nahi  
baduzu

94 491 13 37

**dirulaguntzak**

Boluntzarreta  
BBK 2095 0121 10 9102483676  
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

**UK Urbe Kostako Aldizkaria**  
171 posta kutxa / Arnezti 6, 4. solairua 5.  
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58  
31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

[berbetan]

katu behar nuela aprobetxatuta lau ikasketa urteak egin nituen. Baina urte haietan ere hobby moduan hartzen nuen argazkilaritza. Futbolari zarenean ezin zara beste edozertan askorik ibili, ez profesional moduan behintzat.

—Profesionala izan ez arren, zenbait erakusketatan parte hartzeko aukera eduki zenuen.

—Bai, Bartzelonan erakusketa batzuk egin nituen, baina tira... Antolatzaileak lagunak zirelako parte hartu nuen. Gainera, han egin nuen lehen erakustaldia ausartegia izan zela onartzen dut. Oraindik ikasten nengoen, argazkiak halamoduz errebelatzen nituen, eta ez neukan behar beste mailarik. Lotsa pixka bat ematen dit erakusketa horrekin gogoratzeak. Bigarren erakusketak erretratu gehiago zituen, eta txukunagoa zen.

Hemen ere erakusketaren baterako argazkiak eskatu zizkidaten, baina ez pentsa gauza handiak zirenik. Izango zen futbolari profesional batek argazkiak ateratzea harrigarria

## “Futbola utzi nuenean ez nuen zelai kontuez ezer jakin nahi; presioarekin nazkatuta nengoen”

egingo zitzaizela, eta ziurrenik jakinminak bultzaturik deituko zidaten, ez puntako argazkilaria nintzelako. Zarauzko Photomuseum-ekoek ere zer edo zer egitea proposatu zidaten, gero Arte Eder museoko Jose Julian Bakedanok deitu zidan, baina ez bata ez beste ez ziren atera. Eta eskerrak, salta gehiegitan sartzea iruditzen baitzitzaidan. Gauza bat da erakusketa txikietan parte hartzea, eta beste bat maila handiko kontuetan sartzea. Korner bat edo penalti bat jaurtikitzera ausar naiteke, baina halako kontuetan sartu... Ez.

—Puntako argazkilaria izan ala ez, Athleticen taldekide zenituen zenbait jokalariz egin zenuen erretratu sailak arrakasta handia eduki zuen.

—Benetan?

—Bai, hala izan zen.

—Gogoan ditut argazki haiek. El País-en aldizkarian argitaratu zituzten, eta azken orduko kontuengatik Larrazabali egin nion argazki bat ez zen sartu. 95ean izan zen, Athleticekin jokatu nuen azken urtean. Bai, ondo pasa genuen argazkien kontuarekin. El País-eko zuzendaria zenak deitu zidan jokalariekin zerbait egin nezan, eta erretratu sail bat egitea pentsatu nuen. El Periódico de Cataluña-ko gehigarriko ere argazki batzuk egin nituen, baina Mallorcan nengoen orduan. Kamera panoramiko bat utzi zidaten lana egiteko, eta hamaika buruhauste eman zizkidan. Partida batera eraman nuen kamera, eta jokalaria baino gehiago turista ematen nuen. Argazki batzuk ordezkioen aulkitik atera nituen, eta haietako bat egunkari batean argitaratu zidaten. Ecijan gertatu zen, eta partida irabazi egin genuen.

Ondoren, kamera kontzentrazioetara eramaten hasi nintzen jokalariei argazkiak egiteko. Pena handia dut jokalarien egunero-

koari argazki gutxi eskaini nizkiolako, eta nire hasierako asmoa horixe zen: barruko egoera jasotzea. Baina nahiko ezerosoa gertatzen zen. Jokalariak uneoro kameran aurrean daude, eta normala denez euren intimitatea babestu nahi dute. Lankide izateak ez dizu intimitate apur hori apurtzeko eskubidea ematen.

—Dena den, zure argazkietan ez dira futbol jokalariek soilik ateratzen.

—Bartzelonako garaian, argazki ugaritxo atera nituen El Bornen. Orain modan dago inguru hori, baina urte haietan nahiko baztertuturik zeukaten. Ez zen auzo gatazkatsua, baina ez zuen fama onegirik. Hasieran erraza zen kamera hartu eta handik eta hemendik argazkiak ateratzen ibiltzea. Bartzelonara iritsi berria nintzen, eta jendeak ez ninduen eza gutzen. Baina nire izena ezagun egiten joan zitzaizen neurrian, kontua nahiko aldatu zen.

Argazki bat ateratzera joan, norbaitek zu ezagutu eta hortxe etortzen zitzaizkizun denak gainera. Horrek pixka bat atzera bota ninduen.

—Anaia ere jokalaria izandakoa duzu eta gaur egun ilustratzaile ezaguna da. Zeu ere futboleko aritutakoa zara eta argazkilaritza duzu pasio. Halako zaletasunak edukitzea familia kontua ote?

—Ez dut uste. Gurasoak pertsona apalak dira, larretik etorritakoak. Egia da mutikoak ginenetik oso mugituak izan garela. Anaia komikiarekin hasi zen, eta gerora ilustrazioaren munduan sartu zen. Nik neuk argazkilaritzara zuzendu ditut neure urratsak, baina denborarekin etorritako zerbait izan da. Anaiak argi zeukan zer egin nahi zuen. 17 urterekin futbola jokatzeari utzi eta Arte Ederretako fakultatean sartu zen. Nire kasuan, futboleko ondo nengenez, hortik jo nuen.

—Nonbait, anaiak ausardia handiagoa erakutsi zuen.

—Eta izugarri pozten naiz hartu zuen erabakiagatik. Nik neuk onartzen dut argazkilaritzan gehiago sakondu behar nuela. Ezin dut uste hori burutik kendu. Jokatzeari utzi ostean, Jose Mari Amorrortuk eskaturik hasi nintzen entrenatzaile lanetan. Bere ustez, entrenatzaile ona izan nintekeen, eta hain pertsona zoragarria denez, baiezkoa eman nion. Erabaki horrek argazkilaritzatik urrundu ninduen, eta hortxe geratu zait zalantza, agian ez ote nion argazkilaritzari heldu behar... Baina futbola hain da erakargarria, hainbeste lotzen zaitu, azkenean ez baitizu beste ezertan sartzen uzten. Eta ez bakarrik maila profesionalen; amateur mailan aritzen

direnei ere gertatzen zaie hori. Egia da futbol profesionaleko hainbat kontu ahazteko modukoak direla. Futbola utzi nuenean ez nuen zelai kontuez ezer jakin nahi; presioarekin nazkatuta nengoen. Baina paradoxa bada ere, jokatzeari utzi eta urte betera mundu guztia itzultzen da futbolera. Barruan darabagun harrak ez digu futbolik gabe bizitzen uzten.

Orain berriro nago futboleko, eta jokalaririk nintzen garaia berriro bizitzen ari naizen inpresioa dut: prentsurrekoak, betiko polemikak, presioa... Horrelakoetan zertarako bueltatuko nintzen galdetzen diot neure

## “Partida batzuk galdu egiten dira, hala ere, irabazten diren batzuk baino zirrara handiagoa pizten dute zaleengan”

buruari, baina segituan futbolak dauzkan gauza onekin gogoratzen naiz: talde giroa, elkarrekin gauza handiak lortzeko aukera... Dena den, argazkilaritzari heltzearena ez dut baztertu.

—Argazkilaria bat?

—Garai batean izugarri miresten nituen Bernard Plossu eta Paulo Nozolino. Eta, jakina, mundu guztiari gustatzen zaizkion klasekoak: Walker Evans, Cartier-Bresson... García-Alixen lana ere gogoko dut. Lehen argazkilaritza liburu asko erosten nituen. Etxea horrelakoez beterik daukat. Bidaia horretarako aprobetxatzen nituen, liburuak erosteko.

—Bereziki gogoko duzun argazki bat?

—Amamari egin nion erretratu bat. Nahiko emakume txikia zen, eta neskato bat ematen zuten argazkian: goitik behera beltzez jantzita, ilea erabat urdinduta, aurpegi xaloarekin... Elgoibarren egon zen erakusketa batean agertu zen, duela urte batzuk.

—Athleticeko entrenatzailea zarela ezin ahaztu eta futbolaren gaineko galdera bat egin beharko dizugu...

—Normalean, errazagoa da halakoei erantzutea.

—Zein irudirekin amaitu nahiko zenuke txapelketa?

—Denboraldi amaieran irudi berbera bilatzen dugu denok; gauzak ondo atera direla islatzen duten argazkiak gustatzen zaizkigu. Dena den, nahiago dut jendeak sentitzea taldeak sentsazio baikorrak igorri dizkiola. Astebururo taldearen gorabeherak jasan behar dituztenez, behintzat, taldearekin gustura egon daitezela, euren buruak taldearekin identifikaturik ikus ditzatela. Berdin du azken minutuan gola sartzen dugun ala ez; kontua da zaleak gustura sentitzea. Izan ere, partida batzuk galdu egiten dira, eta, hala ere, irabazten diren batzuk baino zirrara handiagoa pizten dute zaleengan, jokatu diren modua-

[valverde]



**Patti Smith, Ben Harper, Korn, Pixies...**

...zuzenean eta **debalde** ikusi nahi dituzu? Madrilen maiatzaren 28 eta 29an egingo den **Festimad** jaialdirako sarrerak zozketatuko ditugu. Ikusi nahi badituzu... **Deitu!**

94 491 13 37

**FESTIMAD'04**  
PARQUE EL SOTO / MÓSTOLES / www.festimad.es



# Grabatzen

*Afrika, entzun!* apirilaren amaierarako entzutea espero dugu. Etsaiak taldean ezagutu genuen Afrika Bibang, baina Etsaiak desegin zenetik ez pentsa abeslari algortarrak sama langabezian izan duenik. House musika egiten zuen talde bategaz ibili da eta dabil oholtza gainean. Baina orain oholtza berak bakarrik bete beharko du, soul, jazz... eta beste musika mota batzuk osatutako disko batean. Berak dioten legez, "musika beltza, dantzatekua, baina mezuakin eta euskaraz". Euskal musikaren merkaturia heavy eta rock-aren mugetatik zabaltzeko asmoa duen diskoa: *Afrika, entzun!*

Argazkiak: Asier Mentxaka  
Testua: Irantzu Sagarminga



## NON > Garate estudioak

Garate baserria, 2000. urtetik estudio bihurtuta, Andoaindik 3 bat km-ra dago, gizaki-bilguneetatik urrun. Naturaren soinuak baino ez dira entzuten baserriaren lau hormetatik kanpora; barruan, ordea, musikarien doinuak sutan. Hala ere, Usurbil edota Hernani hurbil daude, edozer behar izanez gero. Grabazio gela nagusiak 100m koadrotik gora ditu, harrizko horma zaharrak, haritz-egur eta adreilu trinkoakaz. Kontrol gela Reflexion Arts-eko Phillip Newell-ek diseinatu zuen, Kaki Arkarazoren eskakizunei jarraituz. Horrez gain, ahots-gela bat, beste grabazio gela bat, eta beheko solairuan estudio txiki bat ere eraiki berri dute. Besteak beste, Garate estudioetan grabatu dituzte euren lanak Banda Basottik, Amparanoiak, Berri Txarrak-ek, Kuraia, Chuchok, Ken 7-k, Sorkunek...

## TALDEA > Afrika, Isr@ eta Ernesto

Afrikak alboan dauzka (alboko orrialde begiratu) Israel Monzoncillo eta Ernesto Maestro, gitarra joleak biak, eta diskoaren ekoizpenean ere parte hartutakoak. Esan daiteke, Afrika buru bada ere, hirurek osatzen dutela taldearen oinarria. Horiez gain, diskoan kolaboratzaile moduan ibili dira Jon Urrutia (pianoa), Gorka Eskauriaza (baxua), Borja Barrueta (bateria) eta Travis Flint (scratch-a). Zuzeneko kontzertuetan, oster, baxu bat, korista, teklista eta musika oinarriak botako dituen lagun bat izango ditu Afrikak alboan.



### TEKNIKARIA > Kaki Arkarazo

Aurkezpenik behar ez badu ere, hemen doaz hitz bi: M-Ak, Negu Gorriak eta Nacion Reixa taldeakaz ibili zen musikari. Gaur egun, produktore eta soinu-teknikari lanetan dihardu. Fermin Muguruza, Manta Ray, Chucho, Betagarri, Amparanoia, Los Deltonos taldeek, besteak beste, bera gidari dutela grabatu dituzte lanak. Eta Afrika eta bere taldeak ere Kaki Arkarazoren esku jarri dute disko hau grabatzea. Garate Estudioetan egiten du lan orain, baina Londresen, Los Angelesen, Vigon e.a. ibili da, talde batek eta bestek grabazioa eta produkzioa zuzentzeko eskatuta.



### ABESLARIA > Afrika Bibang

Burua lehertu beharrean egon arren, tartetxo bat egin digu, eta Afrikak berak aurreratu digu zein estilo izango den entzungai diskoan: "Soul, jazz...estilo horietako fusio bat da. Musika baltza, dantzatekoa, baina mezuakin". Argi zuen euskaraz izan behar zuela: "hasieran 'ingeles ez edo euskaraz?' pentsatu neban. Erdaraz ez, gehiegi berba eitten dogulako eta ganera ez da nire espresio bidea, nahiago dot euskaraz kantatzia, holan berba eitten dotelako. Ganera da pixkat zabaltzeko hamengo merkatua, ze ematen dau bakarrik ein daitekela euskaraz heavyxa, rocka... musika kañerua, eta neuk esaten dot ezetz, musika mota asko dauzela ikertzeko, eta euskaraz be ein daitezkeela". 4 urte igaro behar izan dira disko hau erditu arte: "Proiektua oin dala 4 urte hasi zan, Ferminek animatu ninduen...baie ni ez negon horren konbentzitura ze behar neban heldutasune. 23 urtekin edo izan zan, eta nik ez neban neure burua ikusten bakarlari moduan, beti egon naz atzian koruak eitten eta holan. Baia oin bakarlari moduan diska ateratzeko posibilitadea eman zidatenean, esan neban: zergatik ez?"

### DISKOA > Afrika, entzun!

Horrela izendatu dute diskoa, eta apirilaren amaierarako kalean egotea espero dute. 12 abesti dakartza diskoak, danak euskaraz, bakarra salbu: Bob Marley-ren kanta baten bertsioa; hori ingelesez abestuko du Afrikak. Abestiak Israel Monzoncillo eta Ernesto Maestrok ekoitzi dituzte, eta letrak, ostera, Afrikak berak. Gonbidatu berezi bi izango ditu Afrikak mikrofonoan zenbait kantutan: Fermin Muguruza eta Sorkunen ahotsak, hain zuzen. Metak disketeak plazaratuko du, Garate Estudioetan grabatu da eta Kaki Arkarazo arduratu da grabazio eta nahaste lanez.

### GRABAZIOA > aste bi: buru, belarri, ahots...

Martxoko azken bi asteetan gau eta egun ibili dira Afrika eta bere taldea diskoa erditzeko prestatzen, grabatzen. Goizean goiz altxatu eta buru, belarri eta ahots lanean etengabe, loari, janari eta atsedinari orduak ostean, Afrika, entzun! gureganatzeko. Garate Estudioek apartamentu moduko batzuk eskaintzen dizkiete taldeei, logela, sukalde, eta komuna barne. Beraz, joan-etorrian ibiltzeko beharrik ez. Gainera, baserri inguruko larre, haritz eta txorien kantuek lasaitzeko aukera paregabea eskaintzen dute, barruko burukominak arintzeko eta kontzentrazio maila mugaraino eramateko.



## zineeskola

Oskar Fernández

## Kamerak askatasuna lortu zuenean

Zinema jaio zenean, 1895 urtean, istorioak kontatzeko orduan jarraitzeko zeukan eredu bakarra antzerkia zen. Beraz, kamera eszenaren aurre-aurrean kokatzen zen grabazioa egiteko, ikuslea izango balitz bezala. Egoera horretan kamera ez zen bat ere mugitzen, eszena osoa antzezten zen moduan gordeta gelditzen zen. Lan egiteko era honek, jakina, ez zeukan zer ikusirik gaur egungo grabazio moduekin. Baina hau poliki poliki aldatzen joan zen.

Zinemagileak kameraren kokalekuak eta mugimenduek zeukaten garrantziaz jabetzen joan ziren, eta horrela plano desberdinak sortu ziren, eta haien artean, adierazpen psikologiko aldetik garrantzi handia daukan bat: lehenengo planoak. Plano hau erabiltzeari esker aktoreak ospetsu egin ziren eta ikusleek aldetiko lehenengo lotura afektiboa garatu ziren. Beraz, kamerak eragozpenik gabe aktoreengana hurbiltzen eta urruntzen ikasi zuen: zuzendariak ikuspuntu desberdinetatik grabatzeko aukera zegoela konturatu ziren, eta jakina, ikuspuntu bakoitzak bere irakurketa zuen. Holan sortu ziren gaur egun ezagutzen ditugun *pikado* angelua, *kontrapikadoa* eta *normala*, edo angelu arrunta. Baina sorkuntzak ez ziren hemen gelditu, eta kamerak zeuzkan ahalmen guztiak garatu ziren, eta hala sortu ziren *barrido-ak* eta *travelling-a* ere. Kamera euskarri gurgildun baten gainean leku batek bestera normaltasun osoz mugitzen hasi zen. Kamerarekin lortutako aurrerapen garrantzitsu hauek ikusentzunezkoen tekniketako oinarriko adierazpen baliabideak bilakatu ziren. Era honetan, beste hizkuntza bat garatzen hasi zen zinemaren arloan: ikus-entzunezko hizkuntza unibertsala. 4

## Fas Zinekluba 50 urte

Bilboko zineklub hau Euskal Herriko zaharrena eta Europako bigarrena da

**Fas zinekluba** 1953. urtean sortu zen elkartekulturala da. Gaur egun Euskal Herriari zabalik dagoen zineklubik zaharrena da eta Europako bigarrena. 200 bazkidek osatzen dute kluba eta emanaldietara 400 ikusle inguru hurbiltzen dira.

Zineklub honen helburuetako batzuk dira Bilbon estreinatutako ez diren filmen jatorrizko bertsiak gaztelarazko azpitoluekin eskaintzea, film aintzindariak berreskuratzea edo eta zinemaren munduan mugitzen diren zinemagile eta ikertzaileak emanaldietara eramatea.

«Zineklub honen helburuetako bat da Bilbon estreinatutako ez diren filmen jatorrizko bertsiak gaztelarazko azpitoluekin eskaintzea»

Horrez gain, Fasek liburutegi zerbitzu osotua eskaintzen du; izan ere, Euskadiko zine dokumentazio erregistro handiena da, mila liburu baino gehiagoz eta hamaika entziklopedia eta aldizkariz hornitua.

2003/2004 denboraldi honetan 50 urte bete ditu zineklubak, eta urteurrena ospatzeko hainbat jarduera antolatutako dituzte.



www.cineclubfas.com

Besteak beste, filmeen sorkuntza prozesua eta hedakuntza lana hizpide dituzten eta ondoren liburu batean bilduko diren mahainguruak, Euskal Herriko hiri eta hainbat herritan ikusi ahal izango den film-kartelen erakusketa, film laburren saio bereziak, omenaldiak eta beste. Urte hauetan zehar 1700 emanaldi eskaini dituen Fas zineklubak Bilbo zinema gaietan erreferente bihurtzea du helburu. m

## Ez galdu &gt; "A bout de souffle"

ZINEMA PARADISO • Non: Getxo Antzokia • Noiz: apirilak 23, barikua • Ordua: 20:00



Jean-Luc Godard

1960. urtean egindako filma da eta gaztelaniz *Al final de la escapada* izena jarri zioten. Zuzendaria, Frantziako eta Europako hoberenatarikoa da: Jean-Luc Godard. Bera izan zen "nouvelle vague" edo "uhin berria"-ren zutabe handietako bat. Zinemagile bikain hau oso zorrotza, azkarra eta adoretua izan zen. Gogoa eta bihotza ipintzen zituen bere filmetan, eta hala, bere nortasuna ere islaturik gelditzen zen lan bakoitzean. Garatzen zituen istorioen bidez hausnarketa egiten zuen zinemak zeukan funtzioak, bai eta hedabide honek zituen adierazpen baliabideez. Godard-en filmek ez daukate irakurketa bakarra. *La Chinoise* filmak Parisen 1968ko maiatzan gertatutakoa aurreratzen du. Michel (Jean Paul Belmondo), ganoragabeko lapur bat da: kotxe bat lapurtu eta polizia bat hilko du, eta neska gazte amerikar bat maiteminduko du, baina honek traizioa egingo dio.



Argazkian, taldeko kideak

Ehiztari taldearen 4. maketa  
Maiatzerako kalean egotea espero dute

**Nondik dator izena:** Ehiztari Beltza pertsonaia mitologikoaren izenagaz ezagutzen bagenituen ere, Ehiztari dira orain, "laburnagoa eta zuzenagoa" delako aldatu ei dute izena, Asier bateriak azaldu digun legez. **Noiz hasi ziren:** 1997an sortu zen taldea, orduetik hainbat taldekide aldatu badira ere. **Taldeko kideak:** Asier Martinez (bateria), Iurgi Latxa (gitarra), Iñigo Rozas (baxua) eta Jon Montanchez (ahotsa). **Gustukoa dute:** Hard-rocka jorratzen dute, stoner-rock, pop-rock eta metal garaikidearen ikutuagaz. Gustuko taldeen artean dituzte: Judas Priest, Black Sabbath, AC/DC etab. **Eginiko diskoak:** *Ehiztari* da azken ikutuak ematen dabilzan eta maiatzerako kaleratzea

espero duten 4. maketa. **Besteak beste, jo dute:** Bilboko jaietan, Hernanin, Basaurin, Pasaian, Tuteran, Ondarrun... Leioako I. maketa lehiaketa irabazi zuten, Basauriko 2002ko maketa lehiaketa ere, urte berean Euskadi Gaztea-ko entzuleen saria jaso zuten, eta iaz Bilbo Hiria XV. Pop-Rock lehiaketako 2. faserako sailkatu ziren. **Euskal musikaren egoera:** "Disketxeren batek zugar konfiantza jartzea oso zaila da. Disketxeren egoera ez da ona, momentu nahiko txarra da disko bat ateratzeko. Kontzertuak eta, jaietan, udan, gaztetxeetan... oholiza horietan borrokatzen gabiltza". m

**Harremanetarako:** ehiztaribeltza@euskalnet.net

## diskoak

Michael Bublé  
Michael Bublé  
Warner Music



Frank Sinatra-ren arima 27 urteko abeslari kanadiar honen gorputzean haragitu zaigu. Bublé-ren ahots gaztea indarrez sartzen da aspaldiko abesti erromantikoak biltzen dituen disko dotore honetan: *Kissing a fool, Crazy little thing called love, Moondance...* Beraren orkestrazioak eta koruek ahaztuta zirudien sasoi bateko estiloa gogorarazi digute.

The Soul Sessions  
Joss Stone  
S-Curve Records



XXI. mendean orain arte agertu den hegoaldeko soul musikaririk onena dakarkigu Elton John-en azken aurkikuntzak. *The Soul Sessions* diskoak abeslari gazte baten agerrialdia iragartzen digu, ahots aberatsa eta sutua daukana; gainera, neska honek 16 urte besterik ez dauzka! Lan honen zortzi kantu klasikoak grinagaz eta gustu onagaz abestu ditu Stone-k.

Fjord  
Fjord  
Gaztelupeko Hotsak



Etsaiaik, Ekon eta Su Ta Gar taldeetan ibilitako lau kidek osatu dute Fjord: Mikel, Keu, Juan eta Iban hurrenez hurren. Otsailaren eta martxoaren artean grabatu dute lehendabiziko disko hau, elurrez inguratuta, Azkarateko Katarain estudioan. Rock doinuak dira nagusi, rock indartsua eta mamitsua, baina melodiak baztertu barik eta fiabarduraz betetako erritmoekin.

Diskoa >  
Doctor Deseo



*Rompeme con mil caricias* da Doctor Deseo taldearen disko berria. 1985ean hasi zirenetik zortzi dira, azken honeguz, kaleratu dituzten

diskoak. Aitor Agiriano dabil gitarra jole azken aldiaren taldeagaz, baina disko hau aurreko gitarrari eskaini dio taldeak, Kikeri. Hamar bat abestik osatzen dute *Rompeme con mil caricias* lan berria, eta azken honetan ere betiko estiloari eusten dio taldeak. *Abrazame* da single berria. Amaitzeko, aurrez aurre dituzten kontzertuen artean daude: apirilaren 30ean Iruñean, eta maiatzaren 7an eta 8an Bilbon, Kafe Antzokian.

Blues jaialdia >  
ekainak 11-13

Badakigu zein abeslari eta talde izango diren Getxoko Nazioarteko XVI. Blues Jaialdan: lehenengo egunean, ekainak 11, Victor Aneiros eta bere taldeak joko dute. Egun berean, Eric Sardines latindar jatorriko musikaria arituko da. Ekainaren 12an Bobby Rush-en blues-soul doinuak entzun ahal izango dira, eta azken egunean, hilak 13, Deborah Coleman-ek emango dio amaiera jaialdiari. Aurten ez da euskal blues talderik egongo (iaz Arima Beltza taldea izan zen Getxon). Kontzertu guztiak doan izango dira, Algortako Portu Zaharrean aurretan ere, gaueko 21:30ean.

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Egunerokoa (XVII)

Iritsi da udaberria

Iritsiko da udaberria”, esaten zidan Mikelek duela aste batzuk, egiazki hala gertatuko zela bere burua konbentzitu nahian. Orduan urrun ikusten genuen loreen eta itxaropenaren urtaroa, eta lan, enkargu zein azken orduko kontuen artean ito egingo ginela iruditzen zitzaigun. Orduan botatzen zuen Mikelek esaldi famatua, urte hasieratik hona gehien errepikatu dugun leloa, zinez gauzak aldatuko zirela pentsatu nahi baikenuen. Atzean utzi nahi genituen gertakari lazgarri guztiak, gerraz mintzo zitzaizkigun liburuak, jantzi ilunak, tristezia. Behin udaberria helduta zer egingo genuen hasten ginen esaten, eta tira, baikortasuna erabat desagerturik ez zegoela konturatzeko ginen. Lobo Antunesen *Buenas tardes a las cosas de aquí abajo* irakurtzeari ekingo niola esaten nion nik, urtaro berria liburu berri batekin hastea bezalakorik ez dagoela irizita. Mikelek ilustrazio berriak ditu buruan, bilduma oso bat betetzeko adina, eta haiekin hasi nahiko luke udaberria. Geure asmo eta ilusioen erreasoarekin amaitzen genuen hizketaldia, hurrengo solasaldia suertatzen zenerako aldaketa garaian sartuta egongo ginela pentsatuz. Eta bai, dagoeneko gure artean dugu udaberria, eta, egia esateko, ez dut aldaketa handirik nabaritu. Oraindik hotz da kalean, lore gutxi ageri dira lorategian. Mikelekin egoteko aukerarik ez dut izan, baina imagina dezaket zer botako didan aurrena: “Iritsiko da uda”. Ez baita sekula itxaropena galdu behar. 4

Liburuaren eguna

Apirilaren 23an Munduko milaka kale beteko dituzte irakurzaleek, liburuei gorazarre egiteko

**Apirilaren 23a** aukeratu zuen UNESCOk Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko data legez. Hainbat idazle egun egun horretan zendu edo jaio zirelako aukeratu zuten egun hori eta ez beste bat: apirilaren 23an joan ziren Shakespeare, Cervantes eta Inca Garcilaso de la Vega (1616), eta bestalde, jaio egin zen halako egunez *Lolita*-ren idazle Vladimir Nabokov, 1899 urtean.

«Munduak legez, Uribe Kostak ere ospatuko du Liburuaren Eguna»

Liburuek kalea hartzen duten eguna da hau beraz, irakurzaletasuna bultzatzeko eta zabaltzeko aukeratutako data. Baten batek Liburuaren Eguna dela-eta eguneko ekintza ona egingo du liburu aleren bat erosiz, besteren batek irakurzaletasuna eguneroko goxamena dela pentsatuko du, eta hainbatek axolagabeki igaroko du eguna.

Munduak bezala Uribe Kostak ere Liburuaren Eguna ospatuko du apirilaren 23an, herri bakoitzak bere erara: liburu azokak, hitzaldiak, irakurtaldiak eta abar



Apirilaren 23 batean hil zen Cervantes

daude aurreikusita egun horretarako. Getxon, adibidez, apirilaren 22tik 24ra Algortako Geltoki plazan liburu azoka ipiniko dute, eta liburuak %10 merkeago salduko dira. 23an jendaurreko haur irakurtaldia egingo dute Getxoko ikasleek, aurten Altxorraren Uhartea irakurriz, euskaraz eta erderaz. Besteak beste, Barrikan ere hitzaldia prestatu dute Liburu Egunerako.

Literatura beste bizitza batzuk ezagutzeko bidea ei da, protagonista garen bizipenez gain, beste hamaika abentura bizitzeko itsaso zabala. Egunduek halan pentsatzen dugunon ibaien urak ugaritzen baditu, ongi etorria izan dadila! m

liburuak



**Patri maitea..**  
Hasier Etxebarria  
Alberdania

Bost urtez, hamabostean behin, gutun itxurako zutabe bat idatzi du Hasier Etxebarria Gara egunkarian; edo zutabe itxurako gutun bat, irakurleok ezagutzen ez dugun Patri izeneko bati zuzendua. Liburu hau osatzerakoan, hainbat testu laburtu ditu, eta dietario bat ateratu zaio.



**Lorategi beldurgarriak**  
Michel Quint  
Elrein

Frantzia gehien saldu den liburuetako bat dugu honokoa, ahoz aho zabaldu den gertaera baten emaitza. Michel Quint-ek gure kontzientziaren erdi-erdian jotzen du. Aitareen portaera bitxia dela-eta, lotsatuta dagoen haur baten bizipenak hasten du bere istorioa kontalariak.

Irratia >

Bizkaia Irratia

Bizkaitar asko eta askok gogokoen daukaten euskarazko irratiak **progamazioa berritu du**

**Bizkaia** aldeko entzule askok hurbilago somatzen duten euskara mota darabilen irrati da Bizkaia Irratia. Urri hasieratik proiektu eta programazio berriak dabil, irrati zuzendari Dorleta Alberdik azaldu digunez. 2000. urteko datuen arabera, 29.000 entzule inguru dauzka (baliteke gaur egun gehiago izatea), gehienak andrazkoak dira eta 40 urte-tik gorakoak.

«Bizkaia Irratian hurbileko euskaraz kontatzen dute Bizkaian gertatzen dena, 102.6 frekuentzian»

Era berean, gazteei eta umei eskainitako programak bultzatzeko egitasmoagaz dabilta urritik, adibidez, “Endorfinaz Blai” gazteei zuzendutako programak 3 orduko iraupena dauka aurten, edo “Dona-Dona” saioak baten dituz berera haurrak goizetan. Programa izarren artean, 12 urte bete dituen “Zorion agurrak” dago, aurten indarra emoteko asmoagaz eguerdiko 12:00etan ipini dutena. “Lau Haizetara” da goizeko magazina 9:30etik 12:00etara. Dorleta Alberdik jakinarazi digunez, aurten Bizkaian sortzen diren albiste guztiak batzen eta uhinen bitartez igortzen saiatuko dira, “Bizkaiko egunerokotasuna batzen



Dorleta Alberdi, Bizkaia Irratiko zuzendaria da

saiazten gara, eta irratina jende gehiago ekartzen ere ahaginduko gara aurten, gonbidatuak irratina bertara ekartzen”. Ahalegin horren emaitza, adibidez, eguaztenetan politika gaien inguruko tertulietan politikariak irratiratzeko dituztela da. Amaitzeko, teknologia berrien zurrumbiloi- an ere sartu dira: 2000. urtetik aurrera euren web gunean eskaintzen dituzte egunero Bizkaiko berriak. m

Informazio gehiago: [www.bizkaiairratia.com](http://www.bizkaiairratia.com)

**Egunkariak**  
prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78  
T: 94 491 27 34

aldizkaria >

Aux, urte bat



Aux bihilabetekariak urte bat beteko du maiztzean: zorionak beraz. Kalean daukagu aldizkariaren 6. zenbakia, apiril-maiatzeko dagokien Aux. Doako kultur aldizkaria da, eta informazio eta kritikak lantzen ditu antzerki, musika, argazkilaritza, arte, literatura eta abarrez. 14.000 ale inguru ateratzen dute, eta Bizkaian turismo bulego, taberna, eta jendea bitzen den lekuetan eskuratu daiteke. Gasteizen, ostera, Artium-en, eta Gipuzkoan Artelekun. Web orria ere badaukate, agenda edo aldizkariaren berri emateko.

Informazioa: [www.auxmagazine.com](http://www.auxmagazine.com)

aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

**94 491 13 37**

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba / Anetzi 6, 4. solairua 5. bulego / 48900 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratiak	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Koska Irratia	104.1
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0
Gorliz Irratia	107.8

Getxoko Andra Mari  
Zerbitzu Estazioba

Txartel hau  
aurkezten baduzu  
%50eko  
deskontua  
izango duzu zure  
autoaren  
garbiketana!!!!

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km  
Getxo / Tel: 94 430 15 00

irabazi UKrekin

**MUGI**  
FISIOTERAPIA ZENTRUA

x Tendinitis Esgintzeak  
x Erreuma x Kiroleko

deitzen duen  
**lehenengoak**  
**masai bat debalde**  
irabaziko du!!

94 491 13 37  
aldizkaria@euskalnet.net

Mendieta 2, SOPELE 17 67

**Kafe AZIA**  
**Sarrerak**  
**debalde!**

18 igandea: OLGETAN?HAUR?JAIA  
4 sarrera / 17:30  
20 asteartea: TINSLEY?ELLIS  
2 sarrera / 21:00  
29 ostirala: ORTOPHONIK  
4 sarrera / 20:30

**94 49113 37**

Kafe Antzokiak  
antolatutako ekitaldietarako sarrerak lor ditzakezu.  
UK-ra deitu eta kitto.

[sarean]

## Ciber@rt-Bilbao apirilean

“Nonahiko identitatearentzako erronkak”  
lelopean, astebetean Bilbon garatuko da **arte**  
**eta teknologia berrien kongresua**

**1995. urtetik aurrera** bi urtez behin egiten den teknologia berrien arte eta komunikazioaren topaketa izango dugu laster: Ciber@rt-Bilbao. Apirilaren 23 eta 30 bitartean Bilbon egongo dira teknologia berrietako primerako adituak. Antolatzaileen esanetan, “Ciber@RT Bilbao 2004 espezialitate askoren jaialdia da, bere sail ezberdin hauetan programaturiko jarduerak erakusten duten bezala: Net-Art, Off-Line Multimedia Proiektuak, Nazioarteko Kongresua, Animazioa, Minimazioak eta Instalazio Elkarreragileak”.

Sustatu.com-en irakurri genuenez, hizlarien artean Richard Stallman ospetsua izango da. Bera da software askearen filosofia sortu zuena. Askoren-

tzat, benetako gurutza eta liderra da horregatik. Gauza da Stallmanek gaur eguneko software egiteko eta saltzeko erari buelta eman nahi izan diola, eta horretan dihardu. Gurrupila behin eta berriro asmatzen ibili barik, orain arte egindako programa guztiei etekina ateratzearen alde agertu izan da beti. Horretarako, GPL deritzon lizentzia, ‘General Public License’, sortzen lagundu du. Honen bidez, lizentzia horretan egindako programa guztiak (Linux, adibidez) nahi beste aldiz kopia eta alda daitezke. Hori bai, azkenak egindako lanaren gainean, hurrengoak ere aldatzeko egin ditzake, denon artean programa hobeak lortzeko. m

<http://www.ciberart-bilbao.net/>

## webgida

**IBILALDIA**  
>[www.ibilaldia.com](http://www.ibilaldia.com)

Orrialde honetan Ibilaldiaren kanta entzun dezakezu, Aurreibilaldiren barruan eginiko ekintzen argazkiak ikusi, Ibilaldiaren historia ezagutu, Ibilaldia baino lehen antolatuko diren ekintzen berri izan... Ah! Ibilaldia maiatzaren 30ean da.

**DEBAGOIENEN ATARIA**  
>[www.goiena.net](http://www.goiena.net)

Eredugarria da eskualde honetako euskara hutsezko ataria. Webguneak gaurkotatuzko gaiak lantzen ditu. Bestetik, herritarren parte hartzeak garrantzi handia dauka eta gazte taldeei, euskara elkartei, udalei... eta orohar gizabanako guztiei zabalik dago webgunea. Ikustea merezi du.

## Sarean aurkitu ditugu > Agustin Bilbaoren lanak

Berangon bizi den Agustin Bilbao artistaren erakusketa ederra ikusi daiteke sarean. Pinturak, terrekotak...



Non ikusi: [http://www.margencero.com/agustin/agustin\\_entrada.htm](http://www.margencero.com/agustin/agustin_entrada.htm)

**Amaia Basterretxea** > Euskal Museoko zuzendaria

“Euskal kultura ez da bakarrik iraganean izan garena”



Amaia Basterretxea, Mikeldi ezagunaren alboan

**Bilbotarra da, Basaurin jaio bazen ere. Amaia Basterretxearen titulu akademiko sorta hemen aipatzea ezinezkoa litzateke. Laburbiltzeko, historiaren eta arkeologiaren “zeozer” badakiela esango dugu. 1997tik, Bilboko Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoko (hau da, Euskal Museoko) zuzendaria da. Eta aldarrikatzen duenez, museoan gordeta dagoena ez da gure iragan hutsa, gure izaera bera baizik.**

—Definitu euskal museoa.

—Bada, izenak esaten du, ezta? Euskal museoa, euskal kultura. Nik ez nuke esango arkeologia, etnografia edo ez dakit zeren museoa dela, euskal kulturaren leku berezi bat dela baizik. Kultura gauza “bat” da, dena lotuta dago, bai arkeologia, bai etnografia, bai historia. Esan gura dut horiek denak elkartetik irteten dena geu garela, euskaldunok. Eta ez da esan behar orain arte hau izan da eta hemendik aurrera beste hau izango da. Euskal kultura ez da bakarrik izan gare-

na, baizik eta hori gehi gaur egun egiten gabiltzana.

—Orduan, euskaldunok zelakoak izan ginen ikustera etorten da hona jendea?

—Nik uste hori daukat. Jendeak esaten du, eta ez zait gustatzen, museoan dagoena tradizionala dala. Izan garena. Eta ez. Historia bat, ohitura batzuk eta tradizio batzuk eduki ditugu, eta hortxe daude, ondasuna dira, baina gaur egun ere kultura bat gara, aurrekoagaz lotuta dagoena.

—Bisitari kopurua da zuen buruhaustea?

—Nik ez ditut kopuruak gustoko. Guggenheimek 800.000 bisitari dauzka, baina zer leku dauka, eta zer leku daukagu guk? Dena dela, iaz aurreko urtean baino %5 gehiago eduki genuen.

—Zer ikasi ahal du gaur egungo euskal herriar batek bere buruaz euskal museoan?

—Nor den, beharbada? Gure gizartean jende gaztea dago, eta ez daukate argi euskaldun izatea zer den. Gai batzuk (artzaintza, itsasgizonak...) iragana dira eurentzat, ez daukate zer ikusirik gaur egungo bizimoduagaz. Honelako leku batean beste begi batzukaz

«**Hona etorten direnak euskaldunak nortzuk ziren, eta nortzuk diren jakitera etorten dira**»

sartu behar da. Ez da bakarrik “iragana ikusiko dugu” esatea, ez, orain zer daukagun ikustea baizik.

—Museoen anaia pobrea zarete?


—Ez! Kontua ez da museoa, baizik eta bildumak. Hona etorten diren kanpotarrek, esaterako, esaten dute Guggenheimek oso eraikin polita daukala baina barruan dauden lanak edozein lekutan topa daitezkeela. Gurera etorten direnak, berriz, euskaldunak nortzuk ziren, eta nortzuk diren, jakitera etorten dira. Eta hemengo berezitasunak dituzte gustoko. Anai pobrea izatea ala ez ikuspuntuaren arabera da.

—Louvre-k *Gioconda* dauka, El Prado-k *Guernica*, eta zuek *Mikeldi*... Horrelako batek gainerakoa estaltzeko arriskua dago?

—Alderantziz. Erreferentzia da guretzat. Nor garen edo non gauden esplikatzen behar dugunean, Mikeldi dagoen lekua dela esanda denek dakite. Gainera, badakigu zer diren *Gioconda* eta *Guernica*, baina ez zer den Mikeldi, bakarrik hor dagoela. Guretzat laguntza da, eta ez dut uste txarra denik. m

Iñaki Gilisasti

# Urdulizko berbakeraren lekuko



Erretratuan, Iñaki Gilisasti bere baserriaren aurrean

Bertoko jentegaz egiten doguzen berbaldiak opesten deusueguz hemen. Oraingoan, liburu baten argitalpena dakartsuegu Akabuko Punte honetan, Iñaki Gilisastik ondu dauen “Urduliz aldeko berba lapikokoa”, hain zuzen bere. Beragaz egon gintzen berbatan Uribe Kostako euskara erakusten deuskun behar hau berbagai hartuta.

—Urduliz aldeko berba lapikokoa behar hau aurreko hiztegi baten berredizioa da, ezta?

—Bai, hura 1997an argitaratu zen. Hainbat urte dira proiektu honetan hasi nintzenetik, 10 bat. Hasieran, helburua ez zen liburu bat plazaratzea, herriak darabilen berbak biltzea nuen helburu, literaturaz eta euskara idatziaz aparteko azterketa egitea, baina hura argitaratzean pentsatu barik.

—Ordukoa atondu duzu, osotu daiteke oraindik ere?

—Bai, nire helburua jendeari ahozotasuna eroatea da. Asmo hori nuen behar honetan hasi nintzenean, grabazio bidez kale

mailako berbakera jasotzea eta sarrera hauek guztiak entzuteko formatoan plazaratzea, baina ez da formato erraza jendeari eroateko.

—Hurrengo proiektua izan daiteke hori?

—Proiektu asko ditut buruan, baina denbora gutxi. Baina bai, sarrera guztiak ordenarean entzuteko aukera emon gura dut, entzutetik eta irakurtzera alde handia dago eta. Esaldi bera lau pertsonak irakurriko balute, seguru inork ez lukeela berdin irakurriko. Liburu honek, beraz, grabazio horien aportazioa behar luke izan. Dendakioa eta dirua eskatzen du horrek. Horrez gain, osatzeari begira, azterketa sako-

nagoa ere egin liteke. Jasotako berba bat zein puntura arte den familia horrek baino ez darabilen berba, herrian edo eta eskualdean erabiltzen den berba... hori ere aztertu beharko litzateke.


—Zein da euskararen egoera Urdulizen eta Uribe Kostan?

—Azken urteotan euskararen aldeko taldeak eta instituzioak mugitzen ari dira baina erabileraren aldetik baretuta dago. Ez dut jendearengan euskara erabiltzeko gogorik ikusten. m

## Urduliz aldeko berba lapikokoa

“...Bihar-etziko euskera normaldura abiada bizian goazen sasoi honetan, ona da gure artekoek utzitako ondareaz jabetzea. Horretarako opesten dot berba lapikokoa, bertoko berbakera ederraren testigu”. Honela zioen Iñaki Gilisastik duela sei urte opestu zuen Urduliz aldeko berba lapikokoa-ren berbaurrean.

Behar berri hau haren berredizioa da. Ordukoa atondu eta testuen erderazko pareak ere bildu ditu Iñakik. 7.000 esalditik hartutako 10.600 euskarazko sarrera dakartza eta beste 12.850 erdarazkoak. Baita 200 bat esalege eta esate ere. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateari esker berrargitaratu da; halaber, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaureritzaren dirulaguntza ere jaso du.



Esakere “Abarkadun yantzarik oñek ariñ deittus”



Gorka Vázquez

Norberak balio ez badau edo ez badaki, gatz ixengo da edozer gano-ragaz egitea, hori holantxe da. Baia behar dana yakin, eta ganera tresneri ona dekonak aurre hartzen dautse erraz gariko guztiri: galdetuotsezue osten Schummaker izena dekon morroi bateri. Hainbesterañio heldu barik bere, dana dala, behin ta barrio ikusten dogu gure ingirun ondo hornituko yantzarik txispak ataraten dot-sezela oiñutsik dabilenari.

(Iñaki Gilisastik baturiko esakera bat da hau. Ondoko orrian aurkeztuten dogun “Urduliz aldeko berba lapikokoa” liburuan topako dozue).

## Gurberbake

### ZELAN ESAN > denda baten zeozer erosteko

Testua: Xabi Bilbao

#### Edozein dendatan erabili leitezen esaldik

—Egunon, badekozue hau edo béste? — Badekozue jénero barririk? —Arrastión, hemen sáltzen dozue hau edo béste? —Hemen erosi leite hau edo béste?

—Zénbet balio dau bakotxak? —Zeán (zegan) sáltzen dozue? —Zeán dauz hónek?

—Ondo dau, baia diru lar da niretzako. —Eztait (eztakit), apur bet karu da. —Ño, lar karu da niretzako.

—Ondo dau, emóiostezu bat edo bi. —Ezta merke, baia emóiostezu kílo erdi. —Ederto, emóiostezuz batzuk.

—Zénbet da dana? —Txartelágaz paga lei(te)? —Deskónturik eztozue eiten?

#### Zenbaki batzuk (ahoskera aldetik berezitasune daukenak)

- hamáka (hamaika)

- hogétamaka (hogeita hamaika)
- berrógetamar, hirurógetamasei,...
- éhun, áhun
- áhunde bat, áhunde bi, áhunde hirurógei...
- millé, bimílle, hirimílle,...
- mille ta zortzírehun, millé zortzírehun te hogétamazazpi,...

#### Adibidek

—Egunon andrea!  
—Hálan ekarri, gixona!  
—Zeán dekozue pátate?  
—Pátate? Euro bi kílok.  
—Euro bi? Ezta merke, baia emóiostezuz kílo bi.  
—Bixitzen merke zer da, ba? Hámen deko-zuz pátatak.  
—Merké, arnas hártute bere ezta merke. Ta emóiostezuz piper bátzuk bere.  
—Piperrá ezteku (ez dekoğu), óndiño ezta sásoie!  
—Ondiño eztaude urten? Ba piper barik eingot (egingo dot) tortílle. Zénbet dire pátatak, lau euro ezta?  
—Bai, hólantxe da. Edertó. húrrengorárten.  
—Húrrengorárten, bai. Agur!



zure dirulaguntza behar-beharrezkoa dugu

aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntzarreta  
BBK 2095 0121 10 9102483676  
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria  
171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5.  
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

ALBEkumeak

# Jon Maiaren fan-ak!



Zubilletatik Algortako erdialdera ekarri gaitu bertso-trenak. Zabala Eskoletako ikasleak dituzue protagonista oraingoan. Bertsolaritzarekin lehen kontaktua urrian eduki zuten, baina dagoeneko badute bertso-idoloa: Jon Maia eta Karidadeko Benta.

Testua: **Nahikari Ayo**  
Argazkia: **Asier Mentxaka**

“**Jooo, mesedez, jarri hori, hurakanaren abestia!**” Batzuk pentsatzen egongo zarete ia zein den “hurakanaren abestia”, ba ez nekatu burua, oraintxe azalduko dizuet eta. Dakizuenetz, Jon Maiaren taldeak Karidadeko Benta izeneko diskoa ateratu zuen. “Partida triste Ternuarat” abestia asko gustatu zitzaidan eta eskolara eraman nuen lantzeko asmoz. Zati batean “hurakanaren furia” aipatzen du eta badirudi ikasle haiei gustatu egin zitzaizela. Zergatik Jon Maiaren fanak? Ba, ez dakit, agian nire errua ere bada, hainbestetan eramateagatik haren bertsoak eskolatera.

Bertso-sortak eta kantak abesteko ez dute inolako arazorik izaten. Joan den astean “Neskak baten kontuak” bertsoak eraman eta



Algortako Zabala herri-ikastetxe bertsolari-taldea

poz-pozik abestu zituzten. Onena izaten da eurek idatziko bertsoak entzutea. “**Baina, inkurri badituzu zertarako abestu behar ditugu?**” Bertso bat abestu barik paperean uztea nahiko tristea da, edo behintzat horixe esaten ziguten guri ikastolan. Borrokan ibili eta gero, beti lotzen dut abestarzeta.

Urduri daude maiatzaren 13an Euskal Eguna ospatuko dugulako eta ikastola zein eskola guztiek abestu egin beharko dutelako. “**Jendaurrean abestu? Jopeee, zelako lotsa!**” Kexati samarrak dira, baina lana gogoz egiten dute. Beraz, Jon Maia, badakizu Getxon “fan-club” bat daukazula! m

## «Bertso bat abestu barik paperean uztea nahiko tristea da»

ALBEko gaztetxoak



Ixaso Paia

### TXIKITIK HANDIRA

Lehenengo puntua emanda

Fredi, Xabi, Itxaso, hiru bertsolari, gure artean berriz ez nabil nabari. Nahiz eta beste biak ditudan gidari, familia osoa gabiltza kantari.

Lau oinak emanda

Herri honetan bada jende inozoa, ez dakiena, jakin, zer dugun bertsoa. Nahiz guretzat ez izan horren eroso, egin beharko dugu aurka eraso.

Azken puntua emanda

Bertso giroan bizi izateko eman digute aukera, eta horrela bizi izana niretzat askoz hobe da. Bertsolaritzan atera nahian gure familia aurrera, bertso kantari ibiltzen gara hiru anaiok batera.

# Maiatzak30ean

\* *www.ibilaldia.com*



\* Maiatzaren 30ean ospatuko den Ibilaldiaren berri izan gura duenak erraz dauka, internetera konektatzeko aukera besterik ez du eduki behar: Web orrian aurtengo Ibilaldiaren kanta entzun daiteke, bai eta Ander Deuna eta Betiko ikastolak sakonago ezagutu, eta materiala salgai non aurki daitekeen ere azaltzen da. Baina hori ez da dena, 1978an ospatu zen Ibilalditik gaur arteko historia guztia ere ezagutu dezakezu, eta historiaren gain, Aurreibilaldiaren barruan antolatzen diren ekintzen eta jardueren agenda ere agertzen da. Horren albotik, orain arte egin diren jardueren argazkiak ere ikus ditzakezu. Beraz, Ibilaldiaren nondik norakoan eta antolatzen diren ekintzen berri era zuzen eta txukun batean jaso gura baduzu, badakizu nora jo.

\* *sar zaitenez!!!*



- **Entzun Ibilaldiko kanta** > web orrira sartzeaz batera Ibilaldia 2004ko abestia entzun dezakezu
- **Ikusi argazkiak** > Aurreibilaldiaren barruan eginiko ekintzen argazkiak ikusgai
- **Historia** > Ibilaldiaren historia ezagutu dezakezu, 1978ko Ibilalditik hasi eta ia azken amaitu
- **Aurreibilaldia** > Maiatzak 30eko jai bakoitzaren lehen antolatzen diren Ibilaldiaren inguruko ekintzen berri ere eskaintzen da web orrian



apirilak 24 abril  
**kontzertua**  
merecen todo nuestro crédito

Babeslea/patrocinatzailea:  
**bbk**  
Antolatzailea/organizatzailea:  
**PTM mundubat**  
Laguntzailea/berezia/colaborazioa espezial:  
Bizkaiko Foru Alkanduzko Diputación Foral de Bizkaia  
Laguntzailea/colaborazioa:  
Ayuntamiento de Bilbao - Gobierno Vasco - Viajes Eraski - ALSA - Gran Hotel Domine Bilbao-Hoteles Siken  
Lagunak/amigos: Fiane - Mahou - Igehika - Cafés Baqué - PubliRey  
sarreraren salmenta 20€  
gomiarekin zuzeneko salmenta 20€  
antzerki-herri-erakundeak eta 944 310 310 telefonoan en caperas multiserbizioa o en el teléfono 944 310 310  
www.bbk.es  
BBK 26

**Lekua/lugar:** (Antigua/Lehengoko) Feria de Muestras de Bilbao / Bilboko Erakuste Azoka  
**Ordua/hora:** 19:00  
**Sarrera/entrada:** 23€ (bertan/taquilla: 25€)  
**Elkartasun iharduerak eta erakusketak**  
Exposiciones y actividades solidarias

MIKROKREDITUEN KANPAINA  
MANAGUA HIRIAN  
NIKARAGUA

MIKEL URDANGARIN  
ISMAEL SERRANO  
JESUS CIFUENTES  
GATIBU  
LAGARTO AMARILLO  
LACABRA  
MECANICA  
IDI BIHOTZ  
Amalia Zubiria  
Marina Rossell  
Carlos Chauven  
Juan De Diego  
Gorka Benitez  
Sagra Mielgo  
Kepa Junkera  
Tontxu  
Inma Serrano





gaizka escudero / villabotas-ekoa

## Alkatxofak txirlekin

**P**later gozoa eta egiteko erraza duzue hau. Hasteko, alkatxofa bihotzak (kontserbetan saltzen diren horietakoak erabili denboraz estu bazabiltza) egosi, albardatu eta gorde. Bestetik, txirlak prestatuko ditugu. Zartagina oliba olio-arekin sutan ipini. Berakatzatza eta perrexila gehitu. Berakatzatza urreztatzen hasten denean txirlak eta saltsa loditzeko irin apur bat bota. Ondoren koñak apur bat gehitu eta flanbeatu. Gero ardo zuria eta esparrago ur apur bat bota. Garrantzitsua da txirlak zabaltzen diren heinean banan-banan zartaginetik ateratzea, denak zabaldu arte itxaroten badugu batzuk sikatuko zaizkigu eta. Saltsa horretan berotu lehenago prestatu ditugun alkatxofak. Amaitzeko, dena nahastu. On egin! <sup>m</sup>

### osagaiak

dozena bat alkatxofa • dozena bi txirla • berakatzatza • perrexila ardo zuria • koñaka • pipermint bat • irina



itsaso arana / jolastoki-koa

## Prezio egokian

**Idea** hori oso zabaldua badago ere, ardo onek ez dute beti zertan garesti izan behar. Oso prezio egokian ardo bikainak aurkitu daitezke bilatzen jakinez gero. Ondoko hauek horren adibide batzuk baino ez dira. <sup>m</sup>

### 1,5 euro baino gitxiago

- D'orduño, 2001 (Errioxa, gaztea)

### 1,5 eta 2,5 euro artean

- Aradón, 2002 (Errioxa, gaztea)
- Gómez de Segura, 2002 (Errioxa, gaztea)
- Lavaye, 2002 (Errioxa, gaztea)
- Muro, 2002 (Errioxa, gaztea)

### 4,5 eta 10 euro artean

- Azpilicueta, 2000 (Errioxa, krintza)
- Muga, 2002 (Errioxa, zuria)
- Barzagoso, 97 (Errioxa, erresermba)
- Ramón Bilbao, 2001 (Errioxa, krintza)
- Viña Izadi, 2000 (Errioxa, krintza)

## Maitena hotela

Atzerritar zen bertokoentzat leku **berria** zabaldu dute Getxon



Argazkian, Begoña Govillard

**Maitena** hotela zabaldu berri dute Aingeruaren etorbidean, Galeako bidean. Erabat eraberritu duten etxe txikia baina dotorea da, arrazoizko prezioak dauzkana gainera. Bakoitza modu baten apaindutako zazpi logela ditu goiko pisuan; behekoan, osterara, kafetegi zabal eta bezeroak lasai egoteko egongelaxoa.

Begoña Govillard da arduraduna. Hamar bat urte eman zituen kanpoan zabaldu zuen hotel batean eta orain etxera itzuli da, maite duen beharra bertan egiteko. Abenduaren 19an zabaldu zutenetik, ia egunero beteta egon da hotela. Bezero gehienak, halaber, Europatik etorritakoak dira. Kafetegiaren ere

ez du harrera txarragorik izan, eguraldia lagun izan ez duen arren. Terraza zabalago aurreko aldean, datozen udaberriko egun argitsuetan kafea edo "bermuta" lasai hartzeko paregabea.

Udaberriari begira ere, bizikletak alokatzeko asmoa du Begoñak, "Getxon ibilaldi lasaiak egiteko aukera ederra eskaintzen du, eta bizikleta aproposa da horretarako". Atzerritarrek ezetik guk ere proba genezake esperientzia. <sup>m</sup>

### Maitena Hotela

Aingeruaren etorbidea, 19

GETXO

Telefonoa: 94 406 28 18



aldizkaria  
**etxean**  
jaso nahi  
baduzu

94 491 13 37

### UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5.  
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

zure  
**publizitatea**  
hemen  
**94 491 13 37**

**TXIKI-AUNDI KAFETEGIA**  
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik  
onenak ditugu  
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea



adituak gara  
makailo eta  
kazolatxoak  
prestatzen

Bilbo-Plentzia errepidea  
Elexalde 9, Barrika - Tlf: 94 677 30 09

**Zurikaldai**

JOKIN GARATE BAYO      KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9      Aingeruaren etorb. 4B  
T: 491 14 87      (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 NEGURI      48990 GETXO



ADITUAK GARA PINTXO ETA  
**BoKATA BEROETAN!!!!**

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA



prentsa ¥ aldizkariak  
GETXOKO KIROI PORTUA  
Aritluz z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

### BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

## OLATXO

altzariak  
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 Juan Bautista Zabala, 5  
AREETA ALGORTA  
T. : 94 464 89 94 T. : 94 491 13 94

### VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak  
Especialitateen karta  
Giro atsegina

T: 430 43 33  
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

<p><b>URA</b> t</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Arazoen aurrean aurpegia eman behingoz, eta ez utzi denbora pasatzen gauzak konpondu barik. Errudun sentitzen bazara, zozergatik izango da, ezta? Ba, badakizu zer egin.</p>	<p><b>OTSOA</b> t</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Badakit aste hauek luzeak eta astunak egin zaizkizula, baina gora bihozak! Datozen egunotan ahaztuko zaizkizu tristura guztiak. Zergatik ez duzu Basetxea-ren hurrengo aldian izena ematen? Irabazlea zu ziur!</p>	<p><b>ADARRA</b> t</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Hamabostaldi honetan zure gorpuzak beheralditoxa izango du, baina ez zaitetz larritu. Pasako zaizu dena apur bat zaintzen bazara, eta bestela, hartu telefonoa, eta deitu lagunei mimoak egiteko.</p>
<p><b>AITZURRA</b> t</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Zer uste duzu, abuztuan gaudela, ala? Mahuka motzetan eta azpikomiseta barik! Datorren astean katarroa seguru! Zeozter txarragorik ez baduzu harapatzen, noski... Kontuz ibili!</p>	<p><b>HOSTOA</b> t</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Zelako albiste pozgarria jaso duzun, e? Azkenean espero ez zenuena gertatu egin da. Orain ulertuko duzu zergatik eskatzen nizun pazientzia apurtxo bat... Gozatu ezazu momentu zoriontsu hau.</p>	<p><b>EGUZKIA</b> t</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Loteria ez zaizula gustatzen, ez duzula erosten, lelokeria dela... bla, bla, bla... Baina sakelan 25 boleto daukazu. Zer da hori? Tokatuz gero inori ez esateko asmorik ala? Zekena zara benetan.</p>
<p><b>GARIA</b> t</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Ez dakit nora begira zabiltzan, <i>Garia</i>, baina errugbiko baloi batek baino kolpe gehiago hartzen dituzu aspaldian. Sukaldeko lurragaz kontuz ibili, laprast egiteko arriskua daukazu-eta.</p>	<p><b>LASTOA</b> t</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Zeurea bai marka, <i>Lastoa!</i> Berriro ere parrandan ibili zara, eta aste osoa burua altxatu ezinik pasa duzu. Abisatuta zeunden, baina alperrik. Hurrengorako erosi ezazu kilokada bat Almax, dena beharko duzu-eta.</p>	<p><b>IRATZEA</b> t</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Zenbat bider esan dizute ez uzteko biharko gaur egin dezakezuna? Ba orain txintik ere ez! Aukera pasa zaizu, eta beste bat iristeko datorren hiler arte itxaron beharko duzu. Gutxienez.</p>
<p><b>META</b> t</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Bejondeizula. Azkenean eduki duzu ausardia, eta erabaki garrantzitsua hartu duzu. Erabaki zuzena den ala ez denborak esango dizu, baina lasai egon zaitzake, izarrak zeure alde daukazu-eta. Berba ematen dizut.</p>	<p><b>HAZIA</b> t</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Zorionak. Azkenean konturatu zara ez dela hain zaila zoriontsu izatea; konformatzen jakitea da kontua. Gainera, baikor jaikitzen zara ohetik, gustura gosaltzen duzu, eta ez zaizu lanerako gogorik falta. Segi horrela.</p>	<p><b>NEGUA</b> t</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Zure umore onak inguruko denak alaitzen ditu. Lankideak animatzea ondo dago, baina ez ahaztu zuk ere lan egin behar duzula. Izan ere, azkenaldian zertara begira pasatzen dituzu lan-orduak, galduta egongo bazina bezala.</p>




## mungia

### OKINdegia

Algortan badaukagu  
artisaunen ogia  
izen eta jatorriz  
da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu  
obispoen guleria  
probatu bada edo ez  
dan benetako egia.


KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Mintzaidea, berbalaguna. 2. Arbasoa. Noka, naiz. 3. Ez du ikusten. Alokairua, alogera. 4. Gogorak. Atzizkia. 5. Sumendiaren ahoa. Potasioa. 6. Kanpo. Ukapena. Bizkaieraz, omen. 7. Seta. Izaki txiki bakun, hainbat eritasunen sortzaile. 8. Bokala. Lehen bokala. Baldintza partikula. Ardi, hitz elkarketan. 9. Nekatu, unatu. Kasik. 10. Baserritarrak ez direnak.

Goitik behera

1. Saikapenaren arabera ordenatuak. 2. Eguzki-tarte. Dago. 3. Lasto, hitz elkarketan. Posta adierazten duen ingeles hitza. 4. Agorrila. Suari dario. 5. Atzizki femeninoa. Euskaraz eta kito!. Bi ken bat. 6. Potasioa. Akrobaziak egiten dituen. 7. ... egina, total egina. Italiako telebista. H2O. 8. Du. Egiptoko jainko. Röntgen. 9. Europako diru. Zeruko ura. 10. Anarkoak.

Soluzioak

K	A	V	A	R	H	R	A	K
A	D	I	K	A	T	U	I	A
T	A	R	T	A	V	A	U	S
S	U	R	B	A	M	A	T	E
I	E	A	O	K	U	T	A	V
K	A	R	R	A	T	E	R	A
R	O	K	K	Z	A	K	L	A
V	H	U	K	A	U	S	I	T
N	A	V	A	N	A	V	A	S
E	A	S	K	I	D	E	A	S



eUSKĀLDUNON  
denbora-pasa eta  
hitz jokoen hilabetekaria

IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN 12 ale urtean 30 €

IZEN-DEITURAK .....  
 HELBIDEA .....  
 HIRIA .....  
 LURRALDEA ..... P.K. ....  
 TEL. .... E-MAILUA .....

KONTU KORRONTEA:.....  
 LUMA Aldizkaria, BAGABIGA S.L., 307. Posta Kutsatila 20300 IRUN  
 Tel. 943629564 - 943630883 / E-MAILUA: luma@xvedera.com

www.xedera.com



Bittor Egurrola

Erromoko Txori Alai abesbatza, 1987

**Erromoko** San Jose elizako Alberto Ezkurdia apaizak 1976an sortutako abesbatza da Txori Alai. M. Teresa Gallaga piano irakaslearen laguntzagaz sortu zuen, eta azken hau izan zen lehen zuzendaria. 40 haurrekin (gehienak katekesian zebiltzanak) jarri zen abian korua. Hiru urte geroago, 1979an, aipatu dugun elizan kantatzeaz gain, kanpoan ere jendaurrean kantatzen hasi zen. Geroxeago, 1982an, Luis Antonio Fernández hasi zen antolakuntza lanetan,... eta holantxe gaur arte.

Abesbatzaren urterik oparoenak 1989-90-91 izan ziren, urte haietan egin ziren-eta irteerarik garrantzitsuenak (Cataluña, Alemania, Belgika); korukiderik gehien ere orduan eduki zuen (65 inguru) eta diskoa grabatu eta guzti egin zuten, Begoña Diez de Ulzurrun zuzendaria zela. Garai horretako da (89koa) beherago agertzen den korukideen zerrenda.

Musika arloan lan egiten duten korukide batzuk aipatzekotan, hauek ekarriko nituzke gogora, gutxienez: Irantzu Negueruela piano jolea; Isabel Mantecon, koro honetako zuzendari ohia; Isabel Elvira, organoa Valentzian ikasitakoa; Paloma Carrillo, bera ere koruko zuzendari ohia eta "Zozoak" Abeslari Lagunen Abesbatzaren en sortzailea. Azkenez, gaurko zuzendaria, Leire Abaroa, korukidea ere izan zena. m

**TALDEKO KIDEAK 1989AN:** Idoia Ardazabal, María Bilbao, Begoña Castro, Gentzane Egaña, Ena Fernandez, Arantza Sierra, Ander Egaña, Miren Torres, Isabel Elvira, Iratxe Egaña, Arantza Bilbao, Marta Fernandez, María Gorordo, Iratxe Martinez de Osaba, Patricia Valdenebro, Ana Aretxega, Lidia Carrillo, Ainhoa Lekerikabeaskoa, Virginia Martin, Cristina Perez, Olatz Andueza, Arrate Fernandez, Itziar Lekerikabeaskoa, Elena Lopez, Olatz Martinez de Osaba, Belen Andres, Patricia Gago, María Mauricio, Pablo Navarro, Irantzu Negueruela, Silvia Ramos, Amaya Alonso, Ainhoa Asporosa, Sonia Bartulos, Isabel Mantecon, Leticia Renteria, Edurne Romero, Monica Abendaño, Auria Diharce, Edurne Fernandez, Amaya Andrinua, Ione Egaña, Sara Fernandez, Leticia Martinez, Patricia Martinez, Arantza Olgoso, Aintzane Aretxabaleta, Paloma Carrillo, Lorena Ferrero, Cristina Montero, Susana Navarro, Nagore Romero, Estefania Soto, Gorane Egaña, Gorka Gago, Oscar Martinez, Maialen Olabarrieta, Maria Navarro.

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- 31 urteko arrasatear honek saskibaloian jardun zuen
- Espainiako gizonik ederrena izan ei zen sasoi baten
- Gaur egun, aurkezle lanak egiten ikus dezakegu telebistan

> Aurrekoaren erantzuna: Lorena Bernal  
 > Irabazlea: **\*Iratxe Prieto**

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean Argia astekariaren opari sorta ederra zozketatuko dugu.

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48998 Getxo  
 aldizkaria@euskalnet.net / faxa: 94 491 58 31

Argia astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan



Zumeta-Artzeren lamina

www.argia.com

[aitormenak]

**IDOIA BILBAO** > kazetaria

# “Nekagarria da emakumea izatea eta egun osoan bikain egotea”



**Definitu ezazu zeure burua berba bitan bakarrik.** Ekina eta baikorra. Zein animalia gaz zatoz bat? Lehoi eme bategaz.

**Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea?** Idoia Bilbaoren *Cómo es posible que con este tipazo siga soltera* edo Choderlos de Laclos-en *Les Liaisons Dangereuses*.

**Eta zein pertsonaia antzetzuko zenuke film batean?** *La Masa*. Nekagarria da emakumea izatea eta egun osoan eder eta bikain egotea.

**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?** Boabdil. Granada galtzeagatik bere amaren aurrean negarrez hasten den gizon bat ezin daiteke gaiztoa izan.

**Zure jakirik gogokoena.** Ogi-xerra bat gainean eta bestea azpian; erdian, urdaiazpiko iberikoa.

**Aitortu dezakezun bizio bat.** Telebista ikustea, telebista ikustea.

**Oporretara joateko lekurik aproposena.** Ibiza.

**Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?** Gezurrak.

**Zer janzten duzu lo egiteko?** Irratia.

**Ezin zaitezke bizi...** Lagun barik.

**Zer gordetzen duzu sakeletan?** Denetarik: tabakoa, libreta bat, boligrafo bat, betaurrekoak, diru-zorroa, giltzak, bost posizioko irabiagailu bat...

**Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiena.**

Errezeta-liburu bat. Sukalde bat zer den ere ez dakit.

**Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean?**

Soldadu espainiarrak Iraketik alde egiten dutela.

**Ohitura txarren bat...** Garbitasuna.

**...Eta sineskeriaren bat.** Gatza mahai batean isurtzea.

**Zertan gustatuko litzaizuke haragitzea?**

Jennifer López-en gorputzean eta Tita Cervera-ren garunean.

**Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa?**

Bilbon aparkalekua topatzen dudala.

**Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?** Telefonoaren faktura ikustean.

**Zure azken erokeria.** 180 euro xahutzea telefono-deietan. m

**IDOIA BILBAO**— Famatuak beharrezkoak direla deritzo, “ongi pasatzeko”. Ana Obregón eta Belén Esteban ditu gustuko, “oso desberdinak diren emakume bi, baina arropa berberagaz janzten direnak”. Aitortu digunez, “*Athleticen gol eder bat bezain kitzikagarria da Belén elkarrizketatzea*”. Antzezpenean, diseinuan eta ikusentzunezko errealizazioan zenbait saio egin ostean, Idoia Bilbaok (Basauri, 1970) “*probetxuzko emakumea*” izatea erabaki zuen, eta Historia ikasteari ekin zion, baina laster ohartu zen hor ez zegoela bere etorkizuna. Irrati-lehiaketa bat irabazi zuen 1992an, eta harrezkerotik hedabideetan egiten du behar. Idazten jarraitzen duen bitartean, Tele 5eko *Salsa Rosa* eta ETB2ko *Lo que faltaba* saioetan dabil kolaboratzaile, bihotz kontuez jarduten. Kardiologoa ez den arren.